Eskolaz kanpoko jardueretarako ikasturte honetako deialdian jarduera deszentralizatzea proposatu da, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei nahiena duten antzetzaldea zuzenean kontratatzeko laguntza eskaintzea.

Elkarrizketa-laguntzaileak

Programa honek bi jarduketa-ardatz ditu: elkarrizketa-laguntzaile gisako plaza bat eskatzeko deialdia eta baliabide hau eskatzeko ikastetxe publikoentzako deialdia.

Lehenengo deialdian Bigarren Hezkuntzako Institutuetan eta Ikastetxe Publikoetan ingelera-, alemaniera- eta frantses-laguntzaileentzako 42 beka egon ziren. Beka bakoitzaren zenbatekoa hilean 619 eurokoa da, urritik maiatzera arte. Laguntzaileen ordutegia ikastetxeari eskaintzeko 14 ordukoa da.

Ikastetxeentzako deialdiaren emaitzak:

Eskabideak	Ingelera	Frantsesa	Alemaniera
118	108 (96 estalita)	8 (4 estalita)	2 (0 estalita)

Elkarrizketa-laguntzaileen programa harrera-bilera batekin hasi zen, 2001eko urrian. Bertan dokumentazioa eman zen, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eginitako *Elkarrizketa-laguntzailearen gidaliburua*, eta interes orokorreko eta hezkuntza-intereseko informazioa eman zen. Lehenengo hiruhilekoa amaitutakoan, laguntzaileei jarraipen- eta prestakuntza-saiorako dei egiten zaie.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak laguntzaileen ostatu- eta mantenu-gastuak ordaintzen ditu Iruñeko egonaldiko lehenengo bi egunetan zehar. Gainera, elkarrizketa-laguntzaileentzat aseguruia kontratatzen da.

Programa honen gorabeherak "Plaza de la Cruz" BHIko laguntzailearen borondatezko baja eta Berako "Toki Ona" BHIko eta Doneztebeko "Mendalur" DBHIko laguntzailea programatik kanporatzea izan ziren. Baja hori 2002ko urtarrilaren amaieran gertatu zen. Beste laguntzailea bere funtzioak betetzeko irregularitasun etengabeen ondoren kanporatu zuten programatik.

Nafarroako Gobernuaren plazetarako deialdia osatzeko hor daude HKMk Nafarroari esleituriko plazak (14 irakurle: ingelera 7 eta frantsesezko 7) eta Europar Batasunaren Sokrates programakoak: Comenius 1 eta Comenius 22B.

Laguntzaileen erkapenezko taula:

Hizkuntza	1999-00	2000-01	2001-02	2002-03(*)
Ingelera	24	45	47	47
Frantsesa	12	11	11	11
Alemaniera	0	0	0	0

Ikastetxeak	1999-00	2000-01	2001-02	2002-03(*)
E.I.P.S. IP	11	28	47	52
DBHI	25	39	35	5
BHI	0	1	0	32
OROTARA	36	68	82	89

(*) 2002-2003 ikasturterako aurreikusiriko datuak.

Espediente akademiko oneneko ikasleentzako laguntzak. Atzerriko udako ikastaroak.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 2002ko uztailean atzerrira udako ikastaroetara joateko 898na euroko 214 laguntzatarako deialdia argitaratu zuen. Laguntza horiek Bigarren Hezkuntzako espediente akademiko oneneko ikasleentzakoak ziren. Programa honen aurrekontua 212.074 eurokoa da.

Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzako azken ikasmailetakoa ikasleentzako laguntzetarako deialdia zenbait urtez egin eta gero, DBHko 4.eko eta Batxilergoko 1.ko ikasleentzakoetarakoa egitea erabaki zen, zertarako-eta beka horiek ematen duten ikastaldia, esperientzia eta motibazioa unibertsitate mailetan baino lehenago islatzeko, etapa horretan alegia. Gainera, deialdi horren barruan DBHIak daude.

Uda honetan garaturiko ikastaroak ebaluaturik egiaztatu da ezen deialdi horrek atzerritar hizkuntza hobeto jakitea ekarri duela eta, Batxilergoko ikasleentzat ezezik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ikasleentzat ere eragingarri bezala balio duela.

Batxilergoa edo/eta DBH ematen duten ikastetxeentzako ororentzako gutxieneko beka kopuru bat bermatu behar da. Gero, plazak esleitu behar dira deialdiko ikastaroetan matrikulaturiko ikasle kopuruaren arabera.

Programa honen jarraipena eta ebaluazioa ebaluatzeko galdera-sortaren bitartez egiten da ikasleak atzerritik itzuli bezain laster.

Destinoak eta ikasle kopurua, erkatuta

16 zenbakiko koadroa			
Atzerriko udako ikastaroen bilakaera, 1999-2002			
1999	2000	2001	2002
100 laguntza	203 laguntza	197 laguntza	214 laguntza
15 milioi	30 milioi	32 milioi	212.074 €

25-Dublin	25-Swansea (UK)	25-Swansea	58-UK (Hastings/Southampton)
25-Southampton (UK)	25-Dublin	21-Hastings (UK)	58-Irlanda (Dublín/Galway)
26-Cork (Irlanda)	25-Southampton	25-Dublin	40-EEBB
20-U.S.A.	26-Cork	25-Tralee (Irlanda)	(Connecticut/Massachussets)
	39-U.S.A.	40-U.S.A.	50- Kanada (Burlington/Aurora)
	40-Kanada	56- Kanada	8-Frantzia (Royan)
	3-Francia	7-Royan (Francia)	

Hizkuntzan murgiltzeko Nafarroako ikastaroak

Nafarroako Gobernuaren egoitzetako (Altsasuko "Santo Cristo de Otadía" gazte-aterpetxea eta Irunberriko "Sierra de Leyre" egoitza) hizkuntz murgilketako ikastaroek atzeritar hizkuntza (ingelera) entzun eta erabiltzeko denbora gehitu dute eta beraien bitartez hizkuntza horren ahozko alderdiak lantzen ahal dira, bereziki. Azken batean, ikasi eta ondo pasatzeko aitzakia ederrak dira. Izan ere, programaren barruan heziketa jarduera akademikoak eta astialdiko jarduerak daude uztarturik.

Uda honetan 60na ikasleko 6 talde antolatu dira: bi Altsasun (120 ikasle) eta 4 Irunberri (240 ikasle). Horretarako, Irunberriko egoitza egokitzeko lan gogorra egin behar izan da, hura azken ikasturte honetan erabili ez baita. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu ikasi eta aztertzeke Inbertsio, Beka eta Laguntza Zerbitzuei eta egoitzan bizi diren La Salleko Anaiei.

Ikastarook arrakasta izan dute eta akademi eta ekonomi errentagarritasun handia dute. Hori zela eta, deialdian Lehen Hezkuntzako ikasleak sartzea erabaki zen. Gauza berria eta erronka izan da eta, 2002ko uda honetan antolaturiko ikastaroak ebaluatu ondoren, adin-planteamendu honekin jarraitzea bultzatu gaitu, Lehen Hezkuntzan espediente akademikoaren arabera hautatzerik ez den arren.

Espediente akademikoaren bitartez hautatu behar dira ikasleak DBHko ikasmailetan, atzerrian udako ikastaroak egiteko beken kasurako bezala.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 300 euroko prezioa ordaindu behar du eta Departamentuak ostatua, jatekoa eta Multimedia Gela finantzatuko du.

Ikastarootan funtsezko alderdia izan da hizkuntzak zerbitzu honek bi egoitzetako gelan instalatutako internet sarearen eta teknologia berrien bitartez ikastea. Ingelerarekiko 15 egunetako kontaktuak ikasleengan pizgarriak sortuko ditu.

Ikastaroen jarraipena eta ebaluazioa in situ bisiten eta ikasleei eta ikastaroa adjudikatu zaion enpresari ebaluatzeko emaniko galdera-sorta baten bitartez egin da. Emaitzak oso onak dira, bai hizkuntza ikastearen bai esperientziaren eta elkarrekin bizitzearen aldetik orokorrean.

Urte honetan hezkuntza-beharrizan bereziko ikasle batek parte hartu du. Horrek ahalegin handiak ekarri ditu eta atal honetako pertsona anitz eta NHBBZko adituak (eskolaz kanpoko jarduera izan arren) eta ONCEkoak lanean jarri. Gainera, aparteko baliabide material eta giza baliabide anitz behar izan dira. Hala ere, esperientziak irakatsi ditu, biziki poztu gaitu eta

ahaleginak oso konpentsatu dira.

Erkapen-taula

2000	2001	2002
150 ikasle parte-hartzaile	197 ikasle parte-hartzaile	360 ikasle parte-hartzaile
Aurrekontua: 8 milioi	Aurrekontua: 7 milioi	Aurrekontua: 120.000 €
Hizkuntzak: frantsesa e ingelera	Hizkuntza: ingelera	Hizkuntza: ingelera

Atzerritar hizkuntzaren irakasleentzako 2002ko udako laguntzak

Laguntzotarako deialdia egunero egiten da, zertarako-eta atzerritar hizkuntzen irakasleen hizkuntz eta metodologi prestakuntza eta haiek irakasten duten hizkuntzaren herriko kultura ezagutzea eta haien kultura horrekiko kontaktua sustatzeko. Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 42.000 eurokoa izan zen. Laguntzen zenbatekoa ikastaroen iraupenaren arabera da.

- Gehienez 1.320 €2 aste
- Gehienez 1.560 €3 aste
- Gehienez 1.680 €4 aste edo gehiago

Frantziako, Erresuma Batuko, EEBBetako, Kanadako, Italiako eta Alemaniako hainbat ikastarori buruzko informazioa eman da, Nafarroako irakasleei orori deialdiarekin batera posta elektronikoaren bitartez bidali zaiena.

17 zenbakiko koadroa				
Atzerritar hizkuntzaren irakasleentzako laguntzak, 1999-2002				
Irakasleak	1999	2000	2001	2002
Lehen Hezkuntzako sare publikoa		21	14	10
Lehen Hezkuntzako itunpeko sarea			5	1
Bigarren Hezkuntzako sare publikoa		32	32	19
Bigarren Hezkuntzako itunpeko sarea		11	8	4
Orotara	22	64	59	34

Nafarroako Gobernuaren deialdiaz gain, Europar Batasunaren Sokrates programako beka atzitzen ahal dituzte irakasleek. 2002ko udan 13k jaso zituzten Europako horrelako beka (Comenius 22C).

Ekintzon jarraipena eta ebaluazioa ebaluatzeko galdera-sorta baten bitartez egiten da. Galdera-sorta hori irakasleek dagokien dokumentazioa ematerakoan egindako ikastaroaren alderdi zehatz batzuei buruz bete behar dutena da.

Nafarroako Eskola Kontseilua Europar Batasuneko Estatuekiko eskola-trukeetarako laguntzak ezabatu dituztela ohartu da. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle anitz ziren truke horien onuradunak. Horren guztiaren ondorioz, kontseilu honek programa hau berreskuratzea hobetsi du.

2.8. Arte irakaskuntza.

Irakaskuntza Artistikoei buruzko araudia, 2001-2002 ikasturtea
Hezkuntza zuzendari nagusiaren ekainaren 6ko 531/2001 Ebazpena, Nafarroako Musika Eskolen 2001eko ekainaren 12ko Jardunaldiak egiteko gastua baimendu zuena.
Hezkuntza zuzendari nagusiaren ekainaren 4ko 659/2001 Foru Agindua, oinarritzko kontserbatorioak izandako Udal Musika Eskolentzako diru-laguntzetarako 2001eko deialdia onetsi eta haiek ordaintzeko baimena eman zuena.
Hezkuntza zuzendari nagusiaren uztailaren 16ko 696/2001 Ebazpena, 2000/2001 ikasturterako Musika eta Dantza Ikasketetarako Laguntzetara eta Beketarako Deialdia behin-behinean ebatzi zuena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 24ko 351/2001 Foru Agindua, 2001-2002 ikasturterako "Nazioko edo atzerriko zentroetan arte-ikasketak zabaltzeko laguntza"k, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urtarrilaren hogeita biko 9/2001 Foru Aginduaren bitartez onetsiriko deialdikoak, ematea baimendu zuena (2001eko otsailaren 2ko 15 zenbakidun :bon.a, ostiralekoa).
Hezkuntza zuzendari nagusiaren urriaren 9ko 903/2001 Ebazpena, oinarritzko kontserbatorioak izandako Udal Musika Eskolentzako diru-laguntzetarako deialdian haiek bigarren aldiz banatzea ebatzi eta haiek ordaintzeko baimena eman zuena.
Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 26ko 407/2001 Foru Agindua, 2001/2002 ikasturterako nazioko eta atzerriko zentroetan goi mailako musika-ikasketak egiteko Beketarako Deialdia ebatzi zuena (martxoaren 26ko 113/2001 Foru Agindua).
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 26ko 78/2002 Foru Agindua, Udal Musika Eskolentzako Diru-laguntzetarako 2002ko Deialdia araupetzeko Oinarriak onetsi dituena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 26ko 79/2002 Foru Agindua, oinarritzko kontserbatorioak izandako Udal Musika Eskolentzako Diru-laguntzetarako 2002ko Deialdia araupetzeko Oinarriak onetsi dituena.
Martxoaren 27ko 7/2002 Foru Legea, LOGSE Musika Maila Nagusia ezartzea araupetu eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortu duena
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 17ko 109/2002 Foru Agindua, Iruñeko "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusiari musika maila nagusia Hezkuntza Sistemaren Antolamenduari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Orokorraren arabera eman eta aipatu mailako espezialitateak ezartzea baimendu diona
Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Hezkuntza zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 127/2002 Ebazpena, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezarriko dituen ikasketen Maila Ertaineko lehenengo ikasmaita atzitzeko obren zerrenda onetsi duena.
Hezkuntza zuzendari nagusiaren martxoaren 6ko 160/2002 Ebazpena, haren Orkestra eta Abesbatza ibiltzeko gastuak 2002an ordaintzea baimendu duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 8ko 142/2002 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen goi maila atzitzeko probak araupetu eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian musika-irakaskuntzen goi maila atzitzeko probetarako deialdia 2002/2003 ikasturterako egiteko balio izan duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 8ko 143/2002 Foru Agindua, irailaren 10eko 2618/1966 Dekretua berretsiz Nafarroako Foru Komunitatean Musikaren irakaslearen edo goi-irakaslearen tituluak lortzeko eta apirilaren 25eko 168/1991 Foru Dekretuan ezarritako Plan experimentalari jarraiki hasiriko Dantza Klasikoko ikasketak amaitzeko aparteko probak araupetu eta beraietarako deialdia egiteko balio izan duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 20ko 330/2002 Foru Agindua, Nafarroako Dantza Eskola Zehatzaren tarifak finkatu dituena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 20ko 334/2002 Foru Agindua, Atarrabia eta Burlatako "Hilarión

Eslava" Udal Musika Eskolak, egoitza Burlatan duenak, irakaskuntzak gehitzearren izan duen baimena aldarazi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 28ko 345/2002 Foru Agindua, goi maila musika-ikasketak egiteko 2002-2003 ikasturterako Beka-deialdia onetsi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 362/2002 Foru Agindua, Altsasuko Udal Musika Eskolak irakaskuntzak gehitzearren izan duen baimena aldarazi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 363/2002 Foru Agindua, Noain-Elortz ibarreko "Julián Gayarre Udal Musika Eskolak irakaskuntzak gehitzearren izan duen baimena aldarazi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 367/2002 Foru Agindua, "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian Musika Maila Nagusiko irakaskuntzak emanen dituzten irakasleak izendatzeko prozedura 2002/2003 ikasturterako ezarri duena (2002ko irailaren 18an okerrak zuzentzea).
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 6ko 403/2002 Foru Agindua, Iruñeko titulartasun pribatuko "Kithara" Udal Musika Eskola ireki eta ibiltzea baimendu duena.
Hezkuntza zuzendari nagusiaren abuztuaren 12ko 642/2002 Ebazpena, 2002rako martxoaren 26ko 78/2002 Foru Aginduak Udal Musika Eskolei diruz laguntzeko onetsitako Deialdiko diru-laguntzak lehen aldiz banatzea ebatzi eta haiek ordaintzea baimendu duena.
Hezkuntza zuzendari nagusiaren abuztuaren 12ko 643/2002 Ebazpena, 2002rako, oinarrizko kontserbatorioak izaniko Udal Musika Eskolei diruz laguntzeko onetsitako Deialdiko diru-laguntzak lehen aldiz banatzea ebatzi eta haiek ordaintzea baimendu duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 27ko 423/2002 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen goi mailaren curriculuma ezarri duena.

Nafarroan musika-irakaskuntzak hobetzeko plana.

2002ko apirilaren 20an izan zen *"Musikako profesionalen prestakuntza"*ri buruzko Jardunaldia, araubide bereziko musika-irakaskuntza arautuaren egoera (kontserbatorioena) zehazten duten perspektibak ardatz izan zituena, LOGSE-Goi Mailaren gainean arreta berezia jarri zuena. Ongi iritzi zitzaien une horretan problematika horri heltzeari. Izan ere, lehentxoago, Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroan LOGSE Kontserbatorio Nagusia sortzeko Legea onetsi zuen.

Jardunaldi horretan Kontserbatorioko irakasle anitzek eta Nafarroako Musika Eskolen, NUPen eta loturiko elkarten eta arlo profesionalen ordezkari ugari hartu zuten parte. Bertan *Nafarroan Musikako Goi Maila bideratzen ahal izateko Plana* aurkeztu zen, geroago aipatuko duguna.

Goi Maila

Eremu honetako lan-gai nagusietakoa izan da Nafarroan LOGSE Musikako Goi Maila ezartzeko plana eztabaidatzeko, berari buruzko erabakiak hartzeko eta hura garatzeko prozesua.

Nafarroako Foru Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak honakoa onetsi zuen 2001eko ekainaren 22ko bere bileran: "Nafarroako Gobernuari Musikako LOGSE Goi Maila Garatzea Araupetzeko Eskatu Zion Ebazpena".

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak "Pablo Sarasate" Kontserbatorioaren Zuzendaritza *Goi Maila bideratzen ahal izateko Plana* idatzi duen Batzordearen baitan parte hartzera gonbidatu zuen. Batzordea osatu zutenak honakook izan ziren azkenean: José Luis Yanguas Urmán jauna, Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Teknologia Berrien Zerbitzuko zuzendaria, buru

gisa; Elena Vallés Iriso andrea, Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Atzerritar Hizkuntzen Ataleko burua, buruorde gisa; Jaime Berrade Leza jauna, atal tekniko honetako burua, idazkari gisa; eta Salud Bueno Granados andrea, Nekane Iturrioz Petralanda andrea eta Carlos Etxeberria Alonso jauna, Musika Eskolekiko harremanetarako alboko ikasketa-burua, kide gisa. *Bideragarritasun* Planean ikastetxe-eredua zehaztu da eta Kontserbatorio berriaren perspektibak bultzatzeko neurriak proposatu dira. Plan hori 2001eko azaroaren 21an burutu zen eta Parlamentura bidali zen. "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortzeko Foru Legea idazteko lehenengo arauak eman ziren.

Era berean, musikako goi ikasketak egiteko 2001/2002 ikasturterako emandako bekak kudeatu dira, eta 2002/2003 ikasturterako deialdia. Deialdi hori "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian ezartzen ez diren espezialitateei bakarrik dagokie. Nabarmentzekoa denez, ezein bekadunek ez zuen bere ikasketen bigarren ikasturtea egiteko Nafarroako ikastetxe berrian matrikulatu nahi izan. Hori zela eta, ez ziren bigarren ikasmilako ikasketak ezarri eta 2003/2004 ikasturtean ezarriko dira.

Kontserbatorioen etorkizuneko eraikina

LOGSE Musikako Goi Maila ezartzea araupetu eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortu duen martxoaren 27ko 7/2002 Foru Legearekin bat etorririk, Kontserbatorioa izateko eraikin berria eraikiko da. Oinarrizko legeei jarraiki, Goi Maila eraikin lokabean kokatu behar da. Hori zela eta, gune bat erailotzea eta bertan Maila Ertaineko Kontserbatorioa, Goi Mailako Kontserbatorioa eta "Pablo Sarasate" Orkestraren egoitza jartzea erabaki zen.

Musika-eskolak

Musika Eskolek elkarteak dute 2001eko ekainean eginikako Musika Eskolen Jardunaldiez geroztik. Prozesu horretan zehar, UTEMek haien ordezkariekin eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioaren Musika Eskolekiko harremanetarako ikasketa-burutzarekin lankidetzan jardun du. Lankidetzak horren ondorioz, Maila Ertainean ikasleak askoz gehiago dira. Halaber, Hezkuntzako zenbait ikuskatzailek hala eskatuta, UTEM honek irakasleen titulazioei, espezialitateei eta musika-irakaskuntzekin loturiko beste alderdi batzuei buruzko aholkularitza eman du.

2.9. Hezkuntza eta lanbide orientabidea.

Hezkuntza eta Lanbide Orientazioari buruzko Araudia, 2001-2002 ikasturtea
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 8ko 30/2002 Foru Agindua, "Lan Orientazioko Sarea" izeneko fitxategi informatizatua sortu duena.

18 zenbakiko koadroa					
Ikastetxe publikoetako orientatzaile kopuruaren bilakaera.					
Ikastaroa	1997/1998	1998/1999	1999/2000	2000/2001	2001/2002
Orientatzaileak	98	96	107	107	109

19 zenbakiko koadroa				
Ikastetxe publikoetako orientatzaileen banaketa. 2000/2001 ikasturtea.				
Aldea	Bigarren Hezkuntzako Institutua	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa	Orotara
Iruña	20	1	25	46
Lizarra	4	3	5	12
Tafalla	4	1	8	13
Irurtzun	2	1	5	8
Tutera	5	2	10	17
Elizondo	2	1	4	7
Zangoza	2	3	1	6
Orientatzaileak orotara				109
NHBBZko Orientatzaileak				Orotara
Bisualak				1
Auditiboak				2
Motorikoak				1
Bigarren Hezkuntzako psikikoak				2
Lehen Mailako psikikoak				2
Euskarazko psikikoak				1
Zuzendaritza				1
Hezkuntza Bereziko Zentroak				1
Orotara				11

Eskola-Orientazioko A.T.-ko Orientatzaileak	Orotara
Ataleko Burutza	1
Aholkulari teknikoa	1
OROTARA	2

Orientatzaileak Orotara	122
-------------------------	-----

Itunpeko ikastetxeetako orientatzaileak:

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 29ko 54/2000 Foru Aginduaren bitartez araupetu zen itunpeko ikastetxeen orientazioa. Foru agindu horretan ezarrita dagoenez, 0,04 unitateko orientatzaile batek egon behar du, hau da, 25 unitateko orientatzaile batek.

- Irakaskuntza arauturako, astean 25 ordu: 1,00
- Laguntza, LOGSE Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoko c) letraren arabera, eta "gastu aldakor"etan sartuta ez dauden ordezenak 0,13
- Zuzendaritzaren funtziorako laguntza, LOPEGCE Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera 0,07
- Hezkuntza, psikopedagogi eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatuak, LOGSE Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoko e) letraren arabera: 0,04
- Ratioa, orotara: 1,24

20 zenbakiko koadroa		
Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetako orientazioa, 2001/2002 ikasturtea		
Orientazio zerbitzudun itunpeko ikastetxeen kopurua	Hezkuntza maila	Orduak orotara
45	Lehen Hezkuntza	537
37	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batxilergoa)	453
5	Lanbide Heziketa eta Lanbidean Hasteko Programak	66
Orotara		1.056

2.10. Dibertsitatearekiko arreta. Kulturartekotasuna. Osabidezko hezkuntza.

a) Dibertsitatearekiko arreta.

Araudia, 2001-2002 ikasturtea
Hezkuntza zuzendari nagusiaren uztailaren 17ko 597/2002 Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten edo kulturaren edo gizartearen bazterturik dauden ikasleei jaramon egiteko beharrezko baliabideak aldarazteko edo luzatzeko giza eta ekonomi baliabideak 2002/2003 ikasturterako adjudikatzea ebatzi duena. Aldarazte edo luzatze hori martxoaren 26ko 76/2002 Foru Aginduak onetsi zuen.

1. Kultur eta gizarte baldintza txarrekin loturiko hezkuntza-beharrizanak dituzten ikasleentzako hezkuntza-arreta.

Nazioko Kalitate eta Ebaluazio Erakundeak *Hezkuntzaren adierazkarien estatu-sistema*¹ argitaratuta adierazi duenez:

- Nafarroa da hezkuntzan batez bertze ikasleko gehien gastatzen duena (626.000 pezeta). Nazioko batezbesteko gastua, aldiz, 453.000 pezetakoa da.
- Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan irakasleko ikasle-indizerik txarrena duen erkidegoa da: irakasleko 12,1 ikasle. Nazioko batezbestekoa irakasleko 15,3 ikaslekoa da.
- Antzekotsua gertatzen da irakaskuntzotako hezkuntza-taldeko batezbesteko ikasle kopuruan. Haur Hezkuntzan, Nafarroa nazioko batezbestekoa baino 1,6 puntu (ikasle) beherago dago; Lehen Hezkuntzan, 3 puntu; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 1,3 puntu; Batxilergoan, 2 puntu; eta lanbide heziketan, puntu 1.
- 3 eta 4 urteko haurrak oro eskolatuta daude.
- Nafarroa da Espainian unibertsitatean eskolatutako biztanleri proportziorik handiena duena: unibertsitatean matrikulaturiko 18 urteko emakumeen nazioko batezbestekoa %24koa da; eta gizonena, %17koa. Komunitate honetan, emakumeen batezbestekoa %41ekoa da; eta gizonena, %27koa.
- Derrigorrezko hezkuntzan, adin guztietan, egokitasun-tasak, hau da, kronologi adina eta eskolatzeko-adina elkarrekin bat etortzeko tasak, Nafarroakoak, Espainiako altuenak dira.
- Espainiako eskola-porrotaren indizea, derrigorrezko mailetan, %26koa da; OCDEko Europako herrietako batezbestekoa %22koa da; eta Nafarroakoa %20koa baino txikiagoa da.

Gaur egun, Nafarroako Hezkuntza Administrazioak haurrek kalitatezko hezkuntza izatea bermatzen jarraitzeko helburua du eta hezkuntzako benetako aukera-berdintasuna bermatu gura du egoitza Nafarroan duten eskola-adineko biztanleentzat ororentzat. Ondore guztietarako, egoitza Nafarroan duten haur guzti-guztiek hezkuntza-arreta egokia jasotzen dute, aukera-berdintasuna dutelarik.

¹ NAZIOKO KALITATE ETA EBALUAZIO ERAKUNDEA. *Hezkuntzaren adierazkarien estatu-sistema*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Madril, 2000.

Helburu orokor hori ardatz nagusia zuelarik, Nafarroako Hezkuntza Administrazioak honako helburu zehatzok finkatu zizkion bere buruari:

1) *Hezkuntzan aukera-berdintasuna bermatzea, ikasle bakoitzaren aukeretarako egokiena den arreta bakoiztua posible eginen zuten bideen bidez.*

Nafarroako Hezkuntza Administrazioak horri buruz ekinikako jarduketak dibertsitatearekiko arretarako neurriak dira. Eremu horretan Nafarroa gainerako hezkuntza-administrazioentzako erreferente nabarmen bihurtu da. Ildo horretatik, gure hezkuntza-administrazioak oinarrizko amankomuneko heziketa ulerteko eta integratzeko moduan antolatu eta hezkuntza bakoiztuari begirako eskaerei kasu egiteko gero eta dibertsifikazio handiagoa ekarri nahi izan du aldi berean.

2) *Hezkuntza akademiko-teorikorako gertutasun txikia zuten baina beren etapako oinarrizko berenezko gaitasunak beste bide batzuetatik garatzeko baldintzak zituzten ikasleei hezkuntza-porrotak saihesteko eta zegokien oinarrizko titulazioa lortzeko aukera ematea.*

DBHko 2. ziklo egokituaren diseinua nabarmendu behar da, metodologia praktiko eta funtzionalak dituen. Nafarroako 9 ikastetxetan esperimentatzen ari da gaur egun, eta oso ontzat hartu da. Uste denez, horrela saihesten ahal izanen da 100eko 15-20 ikasleren eskola-porrotak.

Era berean, ildo horretatik, curriculumak dibertsifikatzeko 21 programa daude, 16na urtetik gorako 250 bat ikaslerentzakoak. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan graduatuaren titulua lortzeko esperientzia on-ona ekarri dute.

3) *Gizarterapen-beharrizanak, elkarbizitza- edo jokabide-arazoak eta eskola uzteko arriskua agertzen zuten 16na urtetik beherako ikasleei hezkuntza-erantzunak ematea.*

Nafarroan horri begira ekiniko jarduketan barruan honakook daude:

a) Curriculum Egokituko Unitateak (CEU) sortzea, zertarako-eta 14 eta 16 urte bitarteko ikasleei beraien interes eta beharrizanekin lotuago dauden hezkuntza-esperientziak ematen ahal izateko eta ikasleek eskola-sistematik alde ez egiteko. Haiei erreparoa zieten sektore batzuek haiek diseinatu zirenean. Hala ere, neurri onak izan dira eta bertze autonomia erkidego anitzetan aplikatu dira.

Unitateok Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan kokaturik daude, publikoetan eta itunpekoetan. Halaber, bertze zentro espezializatu batzuetan konpartituriko eskolatzeko araubideko unitateak daude. 1997-1998 ikasturtean abiarazi ziren eta, egun, Nafarroan 26 unitate daude, 2000 ikasleri baino gehiagori kasu egiten dietenak. Ikasleok, neurri hori izan ez balute, hezkuntza-sistematik alde egiten zuketzen ziurrenik.

b) Bigarren hezkuntzan graduatuaren titulua eskuratzeko curriculum-atzerapena konpentsatzeko neurriak (curriculum-egokitzapenak, indartzeko taldeak, 2. ziklo egokituko ibilbideak...) gero eta zorrotasun handiagoz aplikatzea. Ildo horretatik, ikasle etorkinen kasuan, hartzen duten hezkuntzan hasteko, sozializatzeko eta gizarte trebetasunak hartzeko, norbera garatzeko eta hartzen duten kultura atzitzeko modulu zehatzak erantsi behar dira.

c) Ikasle ijitoei bigarren hezkuntzan jarraitu eta laguntzeko hitzarmena sinatzea.

d) Salbuespenezko baina beharrezko neurriak diseinatu eta abiaraztea, hala nola, Nafarroako Uharteko BHIko tailer-gela, batez ere ikasle etorkinei edo kultur edo gizarte egoera txarretatik datozenei kasu egiteko. Neurri hori ereduzko esperientzia da, eta haragoko prestakuntza, antzeko neurriez arduratzen diren irakasleentzat. Neurri horren bitartez kasu egiten zaie 14 urteak beteta Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko igurikapenik agertzen ez duten ikasleei, lanbiderako orientatuz eta prestatuz.

Nafarroako ikastetxe guztiek, beren ezaugarriekin bat etorririk, badituzte, halaber, hezkuntza-orientazio eta hezkuntza-beharrizanekiko arreta zehatza ematen duten langileak. Beharrizan horiek minusbaliotasunaren edo kultur, gizarte eta ekonomi egoera txarren ondoriozkoak izan daitezke. Langile adituon barruan honakook daude: eskola-orientatzaileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, logopedak eta zaintzaileak.

2. Nafarroako ikasle etorkinentzako arreta.

Hezkuntza-sistema gure kultur eta gizarte egiturari erantsita dago, bilduta ongi etor daitezkeen belaunaldiei, gizarte anitzagoko kide guztiekiko errespetua eduki eta dinamikoa izan behar duen trukearen bitartez. Ikasle etorkinak gizarteratzea ondore guztietarako normalizazioaren eta aukera-berdintasunaren abiaburua da. Hortaz, familiek ikastetxea hautatzeko askatasuna izan behar dute. Uneotan, Nafarroan eskolaturiko 100eko 3,5 ikasle etorkinak dira eta ikasleotarik 100eko 54 Iruñean eta beronen eskualdean eskolaturik daude.

Kulturaratzeko eta gizarteratzeko gure eredua ez dagokio asimilazio hutsari edo baloreak nahasteagatiko kultur hibridazioari, kultura bakoitzak duen onenean oinarrituriko ikastaldien bitartez elkar ulertzeari eta giza duintasuna nagusitzeari baizik. Gure nortasunari gizarte anitzaren baitan eusten jakin behar dugu, gurekin bizi direnen baliozkoena ekarri eta gurea eskaini behar dugularik.

Ikasle batzuek harrera-hizkuntza ez jakitearen zailtasunei kasu egiteko, irakasleei gaztelania bigarren hizkuntza bezala irakasteko materialak eta prestakuntza-jarduerak eskaintzen zaizkie. Nabarmendu behar denez, ikastetxe anitzek lan handia egin dute bide horretan, eta irakasle anitzek zailtasun horiek arintzeko ahalegin handiak egin dituzte.

Hezkuntza Departamentuak ekiniko jarduketan barruan sarturik honakoa dago: *Kultur eta gizarte baldintza txarren ondorioz hezkuntza-beharrizanak dituzten ikasleen zentsua*. Departamentuaren lehentasunezko jarduketa-arloak, ikasle etorkinei kasu egitekoak, honakook dira:

- a) *Gaztelania bigarren hizkuntza bezala irakastea.*
- b) *Curriculum-atzerapenarekiko erantzuna.*
- c) *Haiek hartu eta hezkuntzaratu eta gizarteratzea.*

Lehen Hezkuntzan, irakasle adituek taldeei arreta ematen diete eta irakasle tutoreak honako lanok egin ditzake:

- Atzerritar ikasleen gaztelania indartzea.
- Kultur edo gizarte egoera txarretako ikasleentzako arreta indartzea, bi ikasturte edo gehiagoko curriculum-desfasearekin.
- Dibertsitatearekiko arreta arruntki indartzea
- Teknologia berriak koordinatzea.

Bertze alde batetik, pedagogia terapeutikoko irakasleek horrelako lanak egiten dituzte ikastetxeak Dibertsitateari Arreta emateko eginiko Planarekin bat etorririk.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko adituak egun mailakako E/L2 zehatzeko curriculum-a egiten ari dira Murtziako Erkidegoko Hezkuntza Sailarekiko lankidetzan.

Eskolatzeko-prozesuan plazak erreserbatu dira ikasle etorkinentzat eta kultur eta gizarte egoera txarrak dituztenentzat, fondo publikoek finantzaturiko ikastetxe guztietan.

2000-2001 eta 2001-2002 ikasturteetan, irakasleak hobetzeko 6 ikastaro egin dira, 7 mintegi eta ikastetxeetan prestatzeko 13 modulu, esperientziak elkarri trukatzeko jardunaldiak eta material didaktikoak aurkezteko zenbait bilera. Jarduera horietatik 890 irakaslaldiak eta material didaktikoak aurkezteko zenbait bilera. Jarduera horietatik 890 irakasle pasatu dira.

Urtero ematen dira *ikastetxeetako kultur edo gizarte egoera txarretako ikasleei arreta emateko laguntzak eta liburuak eta eskola-materiala erostekoak, baita ikasle baztertuentzakoak ere*, bai familiek bai ikastetxeek eskatuta. Laguntzon zenbatekoa 140.000 euro ingurukoa izan zen 2001-2002 ikasturtean, eta ia 2.000 ikaslerentzakoak izan ziren laguntzok.

3. Minusbaliotasunari loturiko hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak.

Arlo honetan, Nafarroak hezkuntza-beharrizan bereziak zituzten ikasleentzako arretan aurrea hartu zuen eta baliabide nabarmenak ditu, hala nola, NHBBZ (Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideetarako Zentroa), eta ikasleoi arreta emateaz arduratzen diren irakasle anitz (orientatzaileak, zaintzaileak, logopedak, pedagogia terapeutikoko irakasleak).

Ikasleak eskolaratu, laneratu eta gizarteratzeko lan berezia egin izan da. Horrela, Nafarroan horrelako ezaugarriak dituzten ikasle guztietarik 100eko 85,71k ikasten dute ikastetxe arruntetan Estatuan batez bertze baino askoz gehiagok. Gainerakoek ikastetxe zehatzetan ikasten dute.

Nafarroako Giberuaren hezkuntza berezirako laguntzetarako eta beketarako deialdiak, Hezkuntza eta Zientzi Ministerioaren deialdia baino gehiagotan aplikatzen denak, 2001-2002 ikasturtean zehar 94.000 euro inguruko 120 eskabideri kasu egin ziren.

21 zenbakiko koadroa											
3. Ziklo Egokituko, 4. Ziklo Egokituko, CEUko eta Dibertsifikazioko matrikulak ikastetxe publikoetan, 2001/2002 ikasturtean											
HERRIA	IKASTETXEA	Ered.	3. Z.		4. Z.		CEU		CURR. DIB.		
			Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	
Altsasu	"S. Miguel de Aralar" BHI ⁽¹⁾	A	22	1			8	1	12	1	
		D							4	1	
Barañain	Barañain BHI	G	15	1						1	
		A									
Bera	"Toki-Ona" BHI	A									
		B									
		D							11	1	
Berriozar	Berriozar DBHI	G								1	
		D									
Burlata	BHI "Ibaialde"	G					5	1			
		A									
Corella	BHI "Alhama"	G								1	
Lizarra	"Tierra Estella" BHI	G						1		1	
		A									
Uharte	Huarte BHI ⁽²⁾	G	3				11	1	12	1	
Leitza	"Amazabal" BHI	D							7	1	
Lodosa	"Pablo Sarasate" BHI	G					7	1	11	1	
		A									
Irunberri-Zang.	"Sierra de Leyre" BHI	G	8	1	8	1					
		A									1
Martzilla	"Marqués de Villena" BHI	G					12	1	15	1	
		A									
Noain	"Elortzibar" DBHI	G							9	1	
		A									
Iruña	"Basoko" BHI	G					6	1	6	1	
		A									
	"Julio Caro Baroja" BHI	G	15	1	8	1	9	1	11	1	
		A									
	"Navarro Villoslada" BHI	G									1
		A									
	"Padre Moret" BHI	G	10	1	10	1					
		A									
	"Plaza de la Cruz" BHI	G	30	2	28	2				12	1
		A									
Azkoien	Peralta BHI	G									1
		A									
San Adrian	"Ega" BHI	G	12	1			7	1	9	1	
		A									
Tafalla	Tafalla BHI	G							11	1	

		A								
Tutera	"Benjamín de Tudela" BHI	G	23	2	18	1			9	1
		A								
Tutera	"ETI" BHI	G						1		
		A								
Zizur Nagusia	Zizur BHI	G	15	1					6	1
		A								
		D								
Orotarako Orokorra			153	11	72	6	65	10	145	22

⁽¹⁾ 3. Z gutxiengoduna da.

⁽²⁾ 3. Z etorkinentzako Unitate esperimentalak da.

Ez dakigu zenbait ikastetxetan talde bakoitza osatzen duten ikasleen kopurua.

Orotara G ERED.	131	10	72	6	57	9	111	17
Orotara A ERED.	22	1			8	1	12	2
Orotara D ERED.							22	3
Orotara B ERED.								
Orotara	153	11	72	6	65	10	145	22

22 zenbakiko koadroa							
CEU matrikulak eta itunpeko ikastetxeetako dibertsifikazioa, 2001/2002 ikasturtea							
HERRIA	IKASTETXEA	Ered.	CEU		CURR. DIB.		
			Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	
Altsasu	Sakana Ikastola	D					
	Sagrado Corazón seminarioa	A					
Barañain	Santa Luisa de Marillac	G					
Burlata	Amor de Dios - Regina Pacis	G					
		A					
Burlata	Irabia	G					
Zizur Txikia	Miravalles - El Redín	G					
	San Fermin Ikastola	D					
Lizarra	Lizarra Ikastola	D					
	Mater Dei - Puy - Anderaz	G	7	1			
Mutiloabeiti	Luis Amigó	G		1			
Iruña	Calasanz	G	8	1			
		A					
	Cardenal Larraona	G					
	Jaso Ikastola	D		1			
	Hijas de Jesús	G		1			
	Nª Sra. de la Compasión	A		1			
	Nª Sra. del Huerto	G					
	Sagrado Corazón	G					
	Salesianos	G	11	1			
	San Agustín	G					
	San Cernin	G					

	San Ignacio	G				
	Santa Catalina - Santísimo Sacramento	G				1
	Santa María la Real	G				
	Santa Teresa de Jesús	G				
	Santo Tomás	G				
	Ursulinas	G				
	Vedruna	G				
Gares	Sem. Padres Reparadores	G				
Zangoza	Zangotzako Ikastola	D				
Tafalla	Eskola Elizkoiak	G				
	Garcés de los Faios Ikastola	D				
Tutera	Anunciata	G				
	San Francisco Javier	G				
Atarrabia	Paz de Ziganda Ikastola	D				
Atarrabia/Burlata	La Presentación - Notre Dame	G				
Orotarako Orokorra			26	7	0	1

Ez dakigu zenbait ikastetxetan talde bakoitza osatzen duten ikasleen kopurua

	G ERED. Orotara		26	5	0	1
	A ERED. Orotara		0	1	0	0
	D ERED. Orotara		0	1	0	0
	B ERED. Orotara		0	0	0	0
Orotarako orokorra			26	7	0	1

Ikus daitekeen bezala, itunpeko ikastetxeetan ez dago 3. Zko ez 4. Zko talderik.

b) Kulturartekotasun hezkuntza eta osabidezkoa.

- Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 26ko 76/2002 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten edo kulturaren edo gizartean bazterturik dauden ikasleei jaramon egiteko beharrezko baliabideak aldarazteko edo luzatzeko 2002ko ekitaldirako luzaturiko Nafarroako 2001eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko 19/2000 Foru Legearen 35.6 artikulua betetzeko deialdi publikorako Oinarri Araupetzailak 2002/2003 ikasturterako onetsi dituena.

Atal hauen estatistika-datuak txosten honen 3.5 blokean ageri dira.

2.11. Hezkuntza sistemaren ebaluazio eta kalitatea. Irakleen promozioa.

Ebaluazioari buruzko Araudia, 2001-2002 ikasturtea
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 18ko 292/2002 Foru Agindua, prozedura murriztuaren eta presazko tramitazioaren bitartez Lehen Mailako seigarren ikasmilako eta DBHko bigarren eta laugarren ikasmilako ikasle guztiei aplikaturiko proben bitartez Espainiar Hizkuntzako, Euskal Hizkuntzako eta Matematikako irakaskuntzen Nafarroako Hezkuntza Sistema Kanpotik ebaluatzeko lana kontratatzeko espedientea onetsi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 19ko 385/2002 Foru Agindua, herri fondoaren bitartez laguntzen zaien Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeentzako ebaluazio- eta kalitate-plana onetsi duena.
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 19ko 386/2002 Foru Agindua, herri fondoaren bitartez laguntzen zaien Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeentzako ebaluazio- eta kalitate-plana onetsi duena.

2001/2002 ikasturtean zehar 4 kalitatezko sare ibili dira. Beraietarik bik 1998/1999 ikasturtean hasitako beren prestabidearekin zirauten. Beste biak sortu berriak ziren. Hilero 5 orduko banakako lan-bilerak egin dira. Beraietara joan dira ikastetxeetako kalitate-arduradunak eta zuzendaritzako taldeetako kideak. N1, N2 eta N3 sareek bilerak Iruñeko PEIren garatu dituzt, eta N4 sareak Tuterako PEIren, hurrengo zerrendan ikus daitekeen bezala.

Jarduera horrek berekin dakarren gastua "Irakasleen prestakuntza-jarduerak" izeneko aurrekontu-partidari egotzi zaio.

Kalitatezko Sareak**N1 Sareko ikastetxeak**

- Basoko BHI
- Biurdana BHI
- Donapea BHI
- Iturrama BHI
- Navarra Villoslada BHI
- Plaza de la Cruz BHI
- Toki-Ona BHI

N2 Sareko ikastetxeak

- Barañain BHI
- Askatasuna BHI
- Ibaialde BHI
- Julio Caro Baroja I BHI
- Sierra de Leyre BHI
- Benjamín de Tudela BHI
- Zizur BHI

N3 Sareko ikastetxeak

- Mendialdea DBHI
- Huarte BHI
- Elortzibar DBHI
- Eunete BHI
- "Julio Caro Baroja II" BHI
- Padre Moret BHI
- Virgen del Camino BHI
- Tafalla II BHI (FP)

- BHI Estella (Politécnico)

N4 Sareko ikastetxeak

- "Azagra" DBHI
- "Zarrakaztelu" DBHI
- "La Paz" DBHI
- "Cortes" DBHI
- "Alhama" BHI
- "Marqués de Villena" BHI
- "Ega" BHI
- Tafalla I BHI

"Nafarroako ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko ereduak ezartzearen egoera"ri buruzko txostenaren laburpena².

Azterlan honen helburua ez da Nafarroako ikastetxeen hezkuntza-kalitatea egiaztatzea; izan ere, beraren bitartez askoz zehatzagoa den zerbait lortu nahi da: "Kalitatea kudeatzeko ereduekin zenbat ikastetxe hasi den eta haiek zein mailatan ezarri diren jakin nahi da. Ikastetxe bat ereduok ezartzen hasirik ez egoteak ez du haren hezkuntza-eskaintzaren kalitateari buruz ezer adierazten: bide horretan hasi ez dela bakarrik esan nahi du.

Aztertze metodoa.

Azterketa hiru fasetan garatu da.

- Lehenengoan, ikastetxeei buruzko informazioa jasotzeko tresnak diseinatu ziren.
- Bigarren fasean, ezarpenaren errealitatea bildu nahi zen, zuzendarien eta irakasleen asmoak edo jarrerak barik.
- Hirugarren fasean, jasotako informazio guztia aztertu eta arauzkotu da.

Emaitzak

- Hurbilketa koantitatiboa.

Nafarroako Bigarren Hezkuntzako 100eko 37 Institutu beren zentroan kalitatea kudeatzeko sistema ezartzen ari dira. 100eko 29 BHI kalitate-sistemok progresiboki ezartzeko prozesua prestatzen ari dira, horren beharraz oharrarazten ari dira eta batzuek prozesua hasi dute. 100eko 43 DBHI ere hori prestatzen eta horren beharraz oharrarazten ari dira.

Hortaz, esan daiteke ezen Nafarroako BHlen bi herenak kalitatea ezartzen laguntzen dabilzala oso maila ezberdinean baina. Maila hori sentsibilizazio- eta prestatze-fasetik kalitatea kudeatzeko gune-alderdiak benetan ezartzerainokoa da. DBHlen erdia baino gutxitxoago dago prestatze-fasean.

Itunpeko Ikastetxeen egoerari dagokionez, azterketa honen emaitzen arabera, 100eko 26 beren Ikastetxeetan kalitatea kudeatzea ezartzeko prozesuan murgilduta daude.

Perspektiba globaletik, emaitzen arabera, Bigarren Hezkuntzako 100eko 25 Ikastetxe (BHI eta DBHI publikoak eta itunpekoak) une honetan ezartzen ari dira beren Ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko sistemak. Herri sarean ez dago prozesu hori hasi duen Lehen Hezkuntzako ikastetxerik.

² Txosten osoa Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Zerbitzu Ikuskapenerako eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak egin du.

- Ikastetxeen karakterizazioa.

Ikastetxe Publikoei (BHI) dagokienez, gehienak (100eko 80) Iruñean eta inguruetan daudenak dira. Ikastetxe handiak dira, eta irakaslego egonkorra dutenak.

Itunpeko Ikastetxeei dagokienez ere gehienak (100eko 80) Iruñean eta inguruetan daudenak dira, eta ikastetxe handiak eta irakaslego egonkorra dutenak.

- Itunpeko Ikastetxeen deskribapena.

Kalitatea kudeatzeko erduekin hasi diren itunpeko ikastetxeak honakook dira: San Cernin, Santa Teresa, Luis Amigó, Irabia, Redín-Miravalles, Jesuitas de Pamplona, Ursulinas eta Calasanz (azken biok, prestatze-mailakoak) eta Cuatrovientos. Honako ikastola hauek hasi dira eredu horiekin: San Fermin, Iñigo Aritza, Zangoza, Jaso.

- a) Prozesu horretan sartu diren Itunpeko Ikastetxeek Ikastetxean kalitatea ezartzeko urte anitzetako eta urteroko lan-plan zehatzak dituzte. Halaber, Ikastetxe-plan estrategikoak dituzte. Eta gehienek Ikastetxearen baloreak, eginkizuna eta ikusmoldea biltzen dituen agiri bat idatzirik dute.
 - b) Ikastetxeotan zenbait irakasle talde eratu dira hobekuntza-talde gisara, zertarako-eta hobekuntzak aztertu eta proposatzeko. Eratutako hobekuntza-taldeen kopuruari eta gaiiei begirako ezberdintasun handia dago Ikastetxe batzuetatik beste batzuetara. Honako gaiok aztertu dira, besteak beste: arloak hobetzea, programazioak, memoriak egitea, laguntzak eta errekupeazioak antolatzea, lanbide orientazioa, gurasoekiko koordinazioa, kirol-arloa antolatzea, eskolaz kanpoko arloak antolatzea, kudeaketa hobetzea, ideiak eguneratzea
 - c) Ikastetxeok metodologia bat eta teknika batzuk erantsi dituzte, kalitatea kudeatzeko eruedetan aplikatzen direnak. Horrela, esate baterako, hobetzeko arloak identifikatzeko teknikak (ad.: D.A.F.O., Ishikawa Arantza, Pareto Diagrama) erabiltzen dituzte, eta erabakiak hartzea bultzatzekoak (ad.: Ideia-jarioa, Talde izendatua). Teknika horiek hobekuntza-taldeek eta Zuzendaritzak erabiltzen dituzte orokorrean.
 - d) Badakite zein den etengabe hobetzearen abiaburua (plangintza, garapena, berrikuspina, doikuntza) baina ez dute arazuk aplikatzen Ikastetxea era arruntan kudeatzeko. Bai hobekuntza-taldeak bai zuzendaritzako taldeak doaz progresiboki norabide horretan.
 - e) Esan daiteke ezen Ikastetxeek Ikastetxea antolatzeko eta ibiltzeko funtsezko prozesuak zein diren jakin dutela. Baina, horrezaz gain, haiek kalitatea kudeatzeko eskemen arabera diseinatu dituzte (prozesuen fluxu-diagramak, kalitate-eskaerak...). Gainera, ikastetxeen erdiak prozedura-eskuliburu delakoa egin du, ikastetxeak estandarizatzeko.
- Diseinaturiko funtsezko prozesuen artean pedagogi eremukoak (programazioa, orientazioa eta tutoretza, eskolako jarduerak) eta kudeaketa- eta kontrol-eremukoak nabarmendu dira.
- f) Ikastetxeotako Zuzendaritzak kalitatea ezartzeko konpromiso handia hartu du eta irakasleak antolakuntza- eta ibilera-kultura honen garrantziaz jabeaz nahi ditu; Zuzendaritzaren iritziz, irakasleak maila "ertain-altu"an inplikatzeko lortu dute. Ez dakigu nolakoa den irakasleen iritzia. Ikastetxeen 2/3ek-edo dute kalitateko arduraduna.
 - g) Ikastetxeotako Zuzendaritzek ongi dakite ezen garrantzitsua dela Hezkuntza Erkidegoaren gogobetetasuna, berau funtsezko kalitate-faktorea baita. Are gehiago, inkestak egiten dituzte guraso, ikasle eta irakasleen gogobetetasun maila ezagutzeko. Ikastetxerik gehienetan arazuk edo ia arazuk egiten dituzte.

Gainera, Zuzendaritzek irakasleen lana aintzatezteko, motibatu eragiteko eta abartzeko neurriak hartzen dituzte. Hori egiten da 100eko 50 ikastetxetan.

- h) Kalitatea ezartzeko puntu sendoetariko bat prestakuntza da. Izan ere, esan daiteke ezen ikastetxeotako Zuzendaritza guztiek gaiotako prestakuntza zehatza dutela eta prestakuntza hori orokorrean handia dela. Prestakuntza hori ez da orokorrean hedatu irakasleen artean. Hala ere, 100eko 50 bat Ikastetxetako Zuzendaritzek adierazi dute ezen 100eko 50 irakaslek baino gehiagok kalitatearen gaineko prestakuntza motaren bat dutela.
- i) Ikastetxeek kalitateaz arduratzen diren erakundeekin harremanetan jarri nahi dute, edo ildo bereko lana egiten duten beste ikastetxe batzuekin, beren lana berresteko edo eransten ahal dituzten esperientziak eta iradokizunak jasotzeko.
- j) Ebaluazioaren kultura kalitatearekin oso erlazionaturik dago. Horregatik, ia ikastetxe guztiek barneko ebaluaziorako sistema zehatza dutela aitortu dute, eta 100eko 50 bat kasutan zehatz-edo erabiltzen omen dituzte autoebaluaketak egiteko EFQMko irizpideak. Izan ere, horrela jakin dezakete hobekuntza-arloak zein diren, hobeto ezagutzen ahal dute Ikastetxea ikuspegi benetakoagotik, eta arazuta daitezke.

Azkenik, ditugun datuen arabera, ezein ikastetxek ez du lortu I.S.O. arauaren ziurtapenik eta ez du ziurtagiri hori eskatzeko asmorik.

- Ikastetxe Publikoen Deskribapena

Kalitatea kudeatzeko ereduarekin hasi diren Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek elkarrekin elkarlanean ari diren, ezarpen-erritmo ezberdinak dituzten eta emaitza ezberdinak lortu dituzten lau ikastetxe-sare eratu dituzte.

1. sarea osatzen duten ikastetxeak honakook dira: Basoko BHI, Biurdana BHI, Donapea BHI, Iturrana BHI, Navarra Villoslada BHI, Plaza de la Cruz BHI eta Toki Ona BHI. Institutuok batez bertze lau ikasturte daramatzate kudeaketa-ereduak ezartzen.

2. sarea osatzen duten ikastetxeak honakook dira: Askatasuna BHI, Barañain BHI, Benjamin de Tudela BHI, Ibaialde- Batxiler eta LH BHI, Sierra Leyre BHI, Julio Caro Baroja BHI eta I.E.S Zizur BHI Bigarren sare horrek batez bertze hiru ikasturte daramatza planok garatzen.

Estella-LH BHI, Huarte BHI, Julio Caro Baroja II BHI, Padre Moret BHI, Tafalla-LH BHI, Virgen del Camino BHI, Berriozar DBHI eta Elortzibar DBHI Institutuak, 3. sarea taldekatuak, ikasturte honetan hasi dira kalitate-sistemak prestatu eta ezartzen

Azkenik, 4 sarea, Ega BHI, Marqués de Villena BHI, Tafalla BHI, Alhama DBHI, Carcastillo DBHI, Cerro de la Cruz DBHI, La Paz DBHI eta Azagra DBHI ikastetxeek osatua, 3. sarea bezala, ikasturte honetan bertan hasi da.

1. sarea

- a) 1. sareko ikastetxeek beraietan kalitatea ezartzeko urteroko lan-plan zehatzak dituzte, eta hausnarketa eta elaborazio maila onarekin arlo kritikoak eta zenbait urtetara begirako jomuga estrategikoak ezarri dituzten plan estrategikoak. Gainera, kalitatea kudeatzeko sistemak eransten dituzten erakundeen eginkizunarekin, ikusmoldearekin eta baloreekin agiria egin dute.
- b) Ikastetxeotan hainbat gai aztertu eta hobetzeko hobekuntza-talde gisa eraturako zenbait irakasle talde antolatu dira. Ikastetxeen artean ezberdintasun nabarmenak daude eraturako talde kopuruari begira. Taldeek honako gaiok aztertzen dituzte, besteak beste: hezkuntza-eskaintza, irakasteko eta ikasteko azpiprozesuak, agiri-kudeaketa, EFQM bidezko autoebaluazioa, irakaslearen koadernoak, jarduera osagarriak eta ikastetxe-irudia.
- c) Zuzendaritzaren eta hobekuntza-taldeen ohiko ibileran hobetzeko alderdiak identifikatzeko diagnostiko-teknikak erabiltzen dituzte eta erabakiak hartzea errazteko teknikak erantsi ohi dituzte. Era berean, etengabe hobetzeko metodologiak aplikatzen dituzte, plangintzan,

garapenean, berrikuspeean eta doikuntzan dautzanak; baina ez dituzte arauz aplikatzen.

- d) Agiriz nabarmendu denez, oso ongi identifikaturik, prozeduraztaturik, dokumentaturik eta ezarririk daude ikastetxeok hezkuntza eskaintzeko, prozesuak irakasteko eta ikasteko, aztertzeko eta kontrolatzeko, agiriak kudeatzeko eta estrategiarako eta planetarako baliatzen dituzten prozesuak, haiek ibiltzeko funtsezko prozesuak direnak. Halaber, 1. sareko Ikastetxe guztiek prozedura-eskuliburu osoa idatzi dute, ikastetxeetan prozesuak arauz ezartzen laguntzen duena.
- e) Zuzendaritzako talde guztiek ahalegin guztiak egiten dituzte kudeaketa-eredu hau irakasleen artean hedatzeko eta sustatzeko. Lan horretan denbora eta baliabide asko ematen dituzte. Kasu guztietan kalitateko arduraduna izendatu da, ezarpena koordinatzen duena. Hala ere, zuzendarien iritzitan, irakasleen inplikazio maila "ertain-txiki"tzat hartzen ahal da.

Zuzendaritzako taldeek uste dutenez, ikastetxearen kudeaketa "dezente" hobetu da, haien Ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezarrita.

- f) Ikusi denez, zuzendaritzak taldeek beti sustatu nahi izaten dute Ikastetxeak egiten duen hezkuntza-zerbitzuarekiko ikasleen eta gurasoen gogobetetasuna bilatzearen kultura. Ikastetxe guztietan, inkesta zehatzak usu egiten dituzte ikasle eta gurasoen gogobetetasun maila neurtzeko. Gainera, irakasleen eta gainerako langileen gogobetetasun maila aldizka ebaluatzen hasi dira, ebaluatze hori ikastetxeak hobetzeko beste gako bat baita.

Ikastetxeok irakasleen motibazioa eta konpromiso maila handiagoa agertzen duten irakasleen aintzatespena sustatzeko neurriak hartzen hasi dira, lantzean behin.

- g) 1. sareko zuzendaritza-taldeak duela lau urtetatik hilean behin biltzen dira elkarrekin lan egiteko, Sareka-ko trebatzaile gaituak aholkatuak. Horrek kalitatea oso bikain kudeatzeko sistemetako prestakuntza maila zehatza dakar. Zenbatetsitakoaren arabera, 100eko 20 irakaslek baino gutxiahgok dute prestakuntza zehatza.

Kudeaketa-eredu horrekiko konpromiso gisa, sareko zuzendari batzuek noizean behin parte hartzen dute kalitatea kanpotik sustatzen. Beraietarik batzuk dira 2001eko apirilean Iruñean eginikako "Instituto publikoen hobekuntza eta kalitateari buruzko lehenengo jardunaldiak antolatze eta eta garatzeko arduradunak.

	1997/98 ikasturtea	1998/99 ikasturtea	1999/00 ikasturtea	2000/01 ikasturtea	2001/02 ikasturtea
Garraio-ibilbideen kopurua	287	274	274	280	281
Kontratatutako autobus kopurua	283	268	275	292	280
Kontratatutako taxi kopurua	27	39	39	38	43
Kostua, Guztira, Pezetatan	987.740.854	989.258.597	1.033.928.644	1.094.353.438	1.316.472.682
Kostua, Guztira, Eurotan					7.912.160,17

Eskola-garraioa erabili duten ikasleak					
Ikasturtea	97/98	98/99	99/00	00/01	01/02
Ikasleak, guztira (HE/LH/BH/DBH)	9.607	9.268	8.893	8.393	8.249
Ikasleak, guztira (derrigorrezkoak ez diren hezkuntzakoak)	2.717	1.998	1.909	2.222	2.192
Garraioa Erabili Duten Ikasleak, Guztira	12.324	11.266	10.802	10.615	10.441

c) Ikasleen egoitzak.

123. koadroa					
Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren menpeko egoitzak					
Ikasturtea	97/98	98/99	99/00	00/01	01/02
Egoitza kopurua	5	5	4	3	2
Erabiltzaile kopurua	93	91	62	50	20
Familiak batez beste ordaintzen duena (Pezetatan)	200.000	230.000	235.000	239.000	250.000
Urteko Tasa Ofizialak					
Eurotan					1.502,53

Ikasleen egoitza bietan hileko 105,25 euro ordaintzen da (urtean hamar hilabetetan); hauek dira egoitzak:

- Peraltakoa: 11 ikasle.
- Huartekoa: 9 ikaslea.

8. HEZKUNTZAKO AURREKONTUAK.

8.1. Aurrekontuen bilakaera.

124. koadroa				
Nafarroako Barne-Produktu Gordinari buruzko informazio orokorra, 1996-2001				
Urtea	Nafarroako BPG	Biztanleak	Biztanleko batez besteko BPG NAFARROAN	Biztanleko batez besteko BPG ESPAINIAN
1997	1.323.886.000.000 PTA.	527.830	2.542.366 PTA.	
1998	1.429.913.000.000 PTA.	530.819	2.695.945 PTA.	
1999	1.591.440.000.000 PTA.	538.009	2.926.748 PTA.	2.306.892 PTA.
2000	1.720.670.000.000 PTA.	543.757	3.164.410 PTA.	2.489.531 PTA.
2001 ⁽¹⁾	1.857.367.000.000 PTA. 11.163.000.000 €	556.263	3.339.009 PTA. 20.067,84 €	

Aurrezki Kutxen Fundaziotik eta INEtik hartutako datuak.

⁽¹⁾ Iturria: Nafarroako Memoria Ekonomikoa, 2001, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberarena.

125. koadroa									
Hezkuntzako gastua eta gastu horren lotura Espainiako BPGarekin									
Urteak	Gastua, guztira ⁽¹⁾			Gastu publikoa ⁽²⁾			Gastua, familiena ⁽³⁾		
	Mila milioi pezetatan	Mila milioi eurotan	% BPG ⁽⁴⁾	Mila milioi pezetatan	Mila milioi eurotan	% ⁽⁴⁾ BPG	Mila milioi pezetatan	Mila milioi eurotan	% ⁽⁴⁾ BPG
1992	3.590,2	21,6	5,8	2.964,6	17,7	4,8	700,5	4,2	1,1
1993	3.842,4	23,1	6,0	3.129,8	18,8	4,9	787,7	4,7	1,2
1994	4.002,4	24,1	5,9	3.210,0	19,3	4,8	866,6	5,2	1,3
1995	4.295,9	25,8	5,9	3.429,0	20,6	4,7	947,9	5,7	1,3
1996	4.552,9	27,4	5,9	3.647,9	21,9	4,7	1.004,5	6,0	1,3
1997	4.761,7	28,7	5,8	3.791,2	22,8	4,6	1.071,2	6,4	1,3
1998	5.038,1	30,3	5,8	3.993,0	24,0	4,6	1.130,1	6,8	1,3
1999	5.407,6	32,4	5,8	⁽⁵⁾ 4.272,4	25,7	4,6	1.210,3	7,3	1,3
2000	5.751,2	34,5	5,7	⁽⁶⁾ 4.560,5	27,4	4,5	1.270,7	7,6	1,3
2001	6.021,3	36,6	5,6	⁽⁶⁾ 4.825,2	29,1	4,5	1.291,1	8,0	1,2

⁽¹⁾ Gastu bateratua, guztira (sektore publikoaren eta familien arteko eskumenak ezabatuta).

⁽²⁾ Administrazio Publiko guztien Hezkuntzako gastuari dagokio (Likidatutako aurrekontuak), Unibertsitateak barne direla. Hezkuntzari egotzitako gizarte kotizazioen estimazioa jasotzen du. 1997tik 1999ra bitarteko kopuruetan Hezkuntzako Gastu Publikoaren Estatistikako azken gaurkotzeak sartu dira.

⁽³⁾ Iturria: I.N.E., 1998ra arte. 2000 eta 2001 urteetarako estimatutako kopuruak.

⁽⁴⁾ 1995eko oinarriko B.P.G. eta Kontuen Sistema Europarra 1995. Iturria, I.N.E.

⁽⁵⁾ Behin behineko kopurua.

⁽⁶⁾ Hasierako aurrekontuetan oinarritutako kopuru estimatua.

126. koadroa Hezkuntzako gastu-adierazlea Europar Batasunean. 1998. urtea	
	Gastu publikoa, guztira, B.P.G.aren arabera
Alemania	4,6
Austria	6,3
Belgika	5,2
Danimarka	8,3
Espainia	4,5
Finlandia	6,2
Frantzia	6,0
Grezia	3,5
Herbehereak	4,9
Irlanda	4,5
Italia	4,9
Luxemburg	m
Portugal	5,7
Erresuma Batua	4,9
Suedia	8,0
EBko herrien batez bestekoa	5,5

Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak egina.

127. koadroa Gastu publikoa Unibertsitatez besteko Hezkuntzan, autonomia-erkidegoa							
	1.997 (milioi pezetatan)	1.998 (milioi pezetatan)	1.999 (milioi pezetatan)	2.000 (milioi pezetatan)	2.001 (milioi pezetatan)	2001eko ikasleak Erregimen orokorra	Gastua/ Ikasleko 2001
Hezkuntza Ministerioa	891.243,0	903.555,0	686.605,0	459.515,8	203.079,9		
Andaluzia	423.856,5	448.348,6	475.612,9	501.619,6	531.414,3	1.426.791	372.454
Aragoi			72.736,3	75.835,5	80.379,9	176.774	454.704
Asturias				1.128,0	74.847,0	146.593	510.577
Baleareak	---	41.963,6	52.833,0	54.220,3	55.738,3	141.496	393.921
Kanariar Uharteak	138.464,8	146.075,0	164.923,0	166.450,6	168.836,3	339.344	497.537
Cantabria			35.793,0	37.236,3	40.341,8	82.794	487.255
Gaztela eta Leon				187.003,0	197.435,7	378.810	521.200
Gaztela-Mancha				2.505,0	139.103,6	312.860	444.619
Katalonia	337.672,8	351.744,4	378.733,0	391.708,4	414.911,5	991.863	418.315
Valentziako Erkidegoa	216.122,8	234.724,2	260.689,2	273.774,9	293.147,9	690.643	424.456
Extremadura				1.543,8	92.444,3	199.499	463.382
Galizia	172.270,8	187.780,1	198.761,3	201.778,1	212.773,1	413.016	515.169
Madril			156.934,9	328.690,8	351.487,9	890.176	394.852
Murtzia			41.509,2	90.400,0	95.895,2	229.965	416.999

Nafarroa	43.447,3	45.140,5	47.239,1	50.411,9	55.669,2	80.895	688.166
Euskal Autonomia Erkidegoa	170.292,9	181.546,7	205.327,8	202.310,9	216.891,6	312.976	692.998
Errioxa			16.490,8	18.712,3	20.403,7	41.672	489.626
Eskumenik ez duten beste autonomia erkidegoak	26.279,9	34.726,9	7.012,8			30.929	
Beste administrazio batzuk	186.579,5	185.598,9	207.142,4				
Guztira	2.606.230,3	2.761.203,9		3.044.845,2	3.244.801,2	6.887.096	

128. koadroa			
Unibertsitatez besteko Hezkuntzako gastu publikoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan			
Urteak	Nafarroako Gobernuaren gastua, guztira	Gastua, guztira, Hezkuntzan	%
1988	318.344.900.000	46.516.116.000	14,61
1999	339.851.500.000	48.809.956.000	14,36
2000	357.672.700.000	50.412.199.000	14,09
2001	394.524.921.000	55.440.726.000	14,05
2002		58.046.477.000 348.866.358 €	

Oharra: 2002. urtean, aurrekontuak luzatu egin direnez, ekonomiako kalkuluak ezin izango dira zehaztasunez jakin ekitaldia amaitu arte.

129. koadroa					
Hezkuntza Departamenduaren aurrekontuaren bilakaera, Unibertsitatez besteko Hezkuntzan (mila pezetatan eta eurotan)					
Kapitulu ekonomikoak	1998	1999	2000	2001	2002(*)
1. Langileen gastua.	28.943.376 % 62,28	30.268.719 % 61,89	30.373.413 % 60,25	33.550.131 % 60,52	35.415.621 212.852.171€ % 61,02
2. Gastua ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.	3.543.690 % 7,62	3.553.590 % 7,27	3.810.006 % 7,56	4.037.317 % 7,28	4.076.796 24.502.039 € % 7,03
4. Transferentziak.	11.511.550 % 24,75	12.388.370 % 25,33	13.387.883 % 26,56	14.209.778 % 25,63	14.823.397 89.090.412 € % 25,54
6. Inbertsio errealak.	2.035.400 % 4,37	2.027.700 % 4,14	2.138.800 % 4,24	2.631.400 % 4,75	2.721.617 16.357.248 € % 4,68
7. Kapital-transferentziak.	482.100 % 1,03	671.572 % 1,37	702.100 % 1,39	1.012.100 % 1,82	1.009.046 6.064.488 € % 1,73
Guztira, Unibertsitatez besteko Hezkuntza	46.516.116 279.567.488€	48.809.951 293.353.714€	50.412.202 302.983.436€	55.440.726 333.205.474€	58.046.477 348.866.358€

HEZKUNTZAKO AURREKONTUAK

Gastuen programak	1998	1999	2000	2001	2002(*)
0. Hezkuntza eta Kulturako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak.	643.608 % 1,37	705.631 % 1,43	29.946.673 % 59,40	33.065.767 % 59,64	210.199.548€ % 60,26
1. Eskolaratzeko baldintzak hobetzea irakaskuntzako maila guztietan.	16.886.974 % 35,90 ¹ UPNA: 480	18.028.913 % 36,45 ¹ UPNA:	18.938.878 % 37,57	20.574.320 % 37,11	127.817.993€ % 36,64
2. Hezkuntzako programak garatzea, Unibertsitatez besteko Hezkuntzan L.H. garatzea	29.226.754 % 62,14	30.444.594 % 61,55	1.234.565 % 2,45	1.494.169 % 2,70	3.289.016 € % 0,94
3. Hezkuntza-berrikuntza, hezkuntza-sustapena eta irakasleen prestakuntza.					2.636.087 % 0,75
4. Araubide bereziko irakaskuntzen eta teknologia berrien sustapena.					3.074.654 € % 0,88
5. Euskararen irakaskuntza sustatzea eta garatzea.	278.480 % 0,59	286.713 % 0,57	292.086 % 0,58	306.470 % 0,55	1.849.060 € % 0,53
Total, programak.	47.035.818 282.690.960 €	49.465.851 297.295.752€	50.412.199 302.983.418€	55.440.726 333.205.474€	58.046.477 348.866.358 €

(*) Behin behineko datuak.

¹ UPNAk egindako inbertsio-gastuak guztirakoan sartu dira eta baita ehuneko bestean.

8.2. Hezkuntzako itunak.

Hezkuntzako itunei buruzko araudia, 2001-02 ikasturtea	
263/2001 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana. Ebazten du Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itun arrunten aldaketa eta luzapena, eta Haur Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako itun bereziak	
46/2002 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana. Arauak ematen ditu Oinarrizko Irakaskuntzako hezkuntza mailetan eta erdi nahiz goi mailako Heziketa Zikloetan hezkuntza itunak aldatu eta luzatzeko.	
333/2002 Foru Agindua, ekainaren 20koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana. Ebazten du Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hezkuntza itun berezi partzialak eta Batxilergoko hezkuntza itun bereziak izenpetzea eranskinetan ageri diren gizarte ekimeneko ikastetxeekin.	
344/2002 Foru Agindua, ekainaren 28koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako itun arrunten aldaketa eta luzapena ebazten dituena.	
146/2002 Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Arautzen ditu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin itundutako ikastetxe pribatuen eskolako jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola zerbitzuak.	
597/2002 Ebazpena, uztailaren 17koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe itunduetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei edo gizarte edo kultur egoera behartuan dauden ikasleei 2002/2003 ikasturtean laguntzeko behar diren baliabideak aldatzeko edo luzatzeko, martxoaren 26ko 76/2002 Foru Aginduaren bidez onetsitako giza eta diru baliabideen adjudikazioa ebazten duena.	
445/2002 Foru Agindua, irailaren 12koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, ekainaren 28ko 344/2002 Foru Agindua eta ekainaren 20ko 333/2002 Foru Agindua aldatzen dituena. Foru Agindu horietako lehenak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itun arrunten eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako itun berezien aldaketa eta luzapenak ebazten ditu, eta bigarrenak, ordea, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hezkuntza itun berezi partzialak eta Batxilergoko hezkuntza itun bereziak izenpetzea ebazten du.	

130. koadroa						
Itunak eta dirulaguntzak, lurralde-eremuka. 1997 eta 1998						
(milioi pezetatan) ⁽¹⁾						
	Itunak 1997	Itunak 1998	Itunak 1999	% bariazioa (1999 1998.arenarekiko)	Hezkuntzako gastua, guztira 1999an	Dirulaguntzen % 1999ko guztirako gastuarekiko
Hezkuntza Ministerioa	117.446	121.231	83.937	-30,76	686.605,0	12,22
Andaluzia	51.693	54.342	59.926	10,28	475.612,9	12,60
Aragoi			12.615		72.736,3	17,34
Balear Uharteak		9.235	10.930	18,35	52.833,0	20,69
Kanariar irlak	8.295	9.445	10.475	10,91	164.923,0	6,35
Cantabria			6.746		35.793,0	18,84
Catalonia	80.962	84.732	96.809	14,25	378.733,0	25,56
Valentziako Erkidegoa	32.003	36.412	43.129	18,45	260.689,2	16,54
Galizia	16.901	17.616	20.530	16,54	198.761,3	10,33
Madril			26.280		156.934,9	16,75
Murtzia			4.830		41.509,2	11,64
Nafarroa ⁽²⁾	9.452	10.067	11.050	9,76	49.465,9	22,33
Euskal Autonomia Erkidegoa	50.920	54.438	56.424	3,65	205.327,8	27,48
Errioxa			2.308		16.490,8	14,00
Guztira	367.672	397.518	445.989			

(1) "Hezkuntzaren Estatistika Espainian" liburutik ateratako datuak. 2000-2001". MECD.

(2) Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenetik ateratako datuak, 2000/2001 ikasturtea.

a) Aurrekontua, eskola unitate bakoitzeko.

131. koadroa					
Aurrekontua, eskola unitate bakoitzeko 1998-2002 urteak					
	1998	1999	2000	2001	2002
Haur Hezkuntzako 2. Zikloa:	5.508.294	5.762.901	6.340.261	6.432.488	42.018,10 €
Soldatak.		% 74,81	% 75,06	% 75,46	% 75,48
Gastu aldakorrak.		% 9,74	% 10,50	% 9,97	% 9,42
Beste gastu batzuk.		% 15,45	% 14,44	% 14,57	% 15,09
Lehen Hezkuntza:	5.600.338	6.974.807	7.137.482	7.272.606	48.608,52 €
Soldatak.		% 71,31	% 73,70	% 73,90	% 74,57
Gastu aldakorrak.		% 12,24	% 12,70	% 12,38	% 11,56
Beste gastu batzuk.		% 16,45	% 13,60	% 13,33	% 13,87
Bigarren Hezkuntzako 1. Zikloa :	6.896.546	8.409.090	8.614.878	8.833.958	58.036,88€
Soldatak.		% 72,39	% 74,93	% 74,57	% 75,85
Gastu aldakorrak.		% 11,58	% 11,53	% 11,86	% 10,29
Beste gastu batzuk.		% 16,04	% 13,54	% 13,57	% 13,87
Bigarren Hezkuntzako 2. Zikloa:	8.435.854	9.859.515	10.090.203	10.222.932	67.640,25 €
Soldatak.		% 73,54	% 76,36	% 77,00	% 77,49
Gastu aldakorrak.		% 14,81	% 10,58	% 9,74	% 9,10
Beste gastu batzuk.		% 11,64	% 13,06	% 13,26	% 13,41
D.B.H. Curriculum-aren dibertsifikazioa			8.479.849	8.627.833	54.025,47€
Soldatak.			% 73,26	% 73,44	% 74,02
Gastu aldakorrak.			% 11,12	% 10,84	% 9,19
Beste gastu batzuk.			% 15,62	% 15,71	% 16,79
D.B.H U.C.A.			9.184.253	9.250.986	61.222,38€
Soldatak.			% 74,68	% 75,62	% 76,10
Gastu aldakorrak.			% 10,90	% 9,72	% 9,09
Beste gastu batzuk.			% 14,42	% 14,65	% 14,82
Batxilergoa eta UBI:	8.410.484	8.635.895	9.708.898	9.971.584	66.067,73 €
Soldatak.		% 73,76	% 74,57	% 75,98	% 75,84
Gastu aldakorrak.		% 14,86	% 10,52	% 10,38	% 10,43
Beste gastu batzuk.		% 11,38	% 14,91	% 13,64	% 13,73
LH I:	9.769.411	10.463.202			
Soldatak.		% 72,84	% 76,03		
Gastu aldakorrak.		% 16,77	% 11,67		
Beste gastu batzuk.		% 10,39	% 12,31		
LH II:	9.376.592	9.793.992	10.023.175	10.226.330	
Soldatak.		% 70,06	% 69,62	% 69,73	% 69,71
Gastu aldakorrak.		% 19,88	% 10,80	% 10,61	% 10,57
Beste gastu batzuk.		% 10,07	% 19,58	% 19,66	% 19,72
Goiko Heziketa Zikloetara sartzeko prestakuntza-ikastaroa:				11.374.368	62.817,80 €
Soldatak.				% 76,60	% 75,56
Gastu aldakorrak.				% 11,48	% 9,99
Beste gastu batzuk.				% 11,92	% 14,44

Hezkuntza Berezia:					
<i>Oinarrizko eta Lehen</i>					
Hezkuntza:	8.846.321	9.177.866	9.395.962	9.556.731	62.471,54€
Psikikoak:	% 45,15	% 45,17	% 45,22	% 45,35	% 45,34
Soldatak:	% 10,41	% 10,33	% 10,38	% 10,44	% 10,78
Beste gastu batzuk:	% 38,13	% 38,47	% 38,68	% 38,91	% 38,93
Langile osagarriak:	% 6,31	% 6,03	% 5,72	% 5,29	% 4,95
Gastu aldakorrak:					
	8.148.169	8.447.537	8.644.558	8.790.801	57.444,38€
Autistak:	% 49,01	% 49,07	% 49,15	% 49,30	% 49,31
Soldatak:	% 11,31	% 11,23	% 11,28	% 11,35	% 11,72
Beste gastu batzuk:	% 32,83	% 33,15	% 33,35	% 33,59	% 33,59
Langile osagarriak:	% 6,85	% 6,55	% 5,72	% 5,75	% 5,38
Gastu aldakorrak:					
<i>Lanbide Heziketa berezia, lanbideak ikastea/Lanbide</i>	15.289.670	15.947.166	16.348.303	16.519.770	107.785,75 €
Berezietako Hastapen Programak:	% 52,63	% 52,38	% 52,37	% 52,87	% 52,95
Soldatak:	% 8,17	% 8,07	% 8,10	% 8,21	% 8,41
Beste gastu batzuk:	% 32,18	% 32,30	% 32,43	% 32,84	% 32,92
Langile osagarriak::	% 7,01	% 7,25	% 7,10	% 6,09	% 5,73
Gastu aldakorrak:					
Helduarora igarotzeko prestakuntza programak:			8.721.010	8.834.690	57.759,85€
Soldatak:			% 48,99	% 49,32	% 49,30
Beste gastu batzuk:			% 11,18	% 11,30	% 11,66
Langile osagarriak::			% 33,05	% 33,42	% 33,41
Gastu aldakorrak:			% 6,78	% 5,95	% 5,64

132. koadroa					
Prestakuntza zikloetarako aurrekontuak. Erdi-maila.					
Prestakuntza zikloak	Ikastaroak	Guztira, modulua	Langileen soldatak (%)	Gastu aldakorrak (%)	Beste gastu batzuk (%)
Administrazio-kudeaketa	1.a	62.311,54	70,77	8,68	20,57
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Administrazio-kudeaketa (eskaintza partziala)	1.a	31.580,41	67,27	8,47	24,28
	2.a	26.469,58	71,40	9,16	19,45
	3.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Erizaintzako zaintza lagungarriak	1.a	65.860,10	73,40	8,79	17,82
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Soldadura eta galdaragintza	1.a	78.546,37	66,40	7,95	25,67
	2.a	69.838,53	63,14	8,00	28,87
Aurreinprimaketa Arte Grafikoetan	1.a	68.852,69	66,81	8,05	25,15
	2.a	64.960,51	65,18	8,17	26,66
Inprimaketa Arte Grafikoetan	1.a	71.674,40	65,00	9,09	25,93

HEZKUNTZAKO AURREKONTUAK

	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Altzariak neurrira egitea eta instalatzea eta arozgintza	1.a	75.759,97	68,65	8,42	22,94
	2.a	66.874,38	65,94	8,09	25,99
Farmazia	1.a	60.310,04	72,14	8,72	19,16
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Ekipo eta instalazio elektronikoak	1.a	72.733,70	67,68	8,28	24,06
	2.a	64.771,53	64,91	8,08	27,02
Mekanizatua	1.a	77.637,52	69,06	8,30	22,65
	2.a	66.155,75	65,33	8,1	26,59
Merkataritza	1.a	68.698,23	73,36	9,2	17,45
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59

Prestakuntza zikloak. Goi-maila

Prestakuntza zikloak	Ikastaroak	Guztira, modulua	Langileen soldatak (%)	Gastu aldakorrak (%)	Beste gastu batzuk (%)
Nazioarteko merkataritza	1.a	61.796,93	72,79	9,41	17,82
	2.a	56.427,25	71,15	9,35	19,52
Produktu elektronikoen garapena	1.a	72.520,56	69,7	9,02	21,29
	2.a	64.380,62	67,58	8,44	23,99
Administrazioa eta Finantzak	1.a	57.246,79	70,64	9,04	20,34
	2.a	58.909,04	70,89	9,36	19,77
Dokumentazio sanitarioa	1.a	64.776,02	70,57	8,99	20,45
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Haur Hezkuntza	1.a	63.690,23	73,61	9,06	17,35
	2.a	48.501,16	67,98	9,26	22,78
Merkataritzako kudeaketa eta marketina	1.a	68.265,29	73,83	9,26	16,92
	2.a	11.050,36	71,59	8,82	19,59
Sistemen administrazioa Informatikakoak	1.a	73.821,36	74,23	9,38	16,41
	2.a	62.343,28	71,44	9,14	19,43
Erregulazio eta kontrolerako sistemak Automatikoak	1.a	75.643,90	72,82	9,02	18,17
	2.a	64.531,73	69,7	9,01	21,3
Mekanizatu bidezko ekoizpena	1.a	70.732,98	69,38	8,46	22,17
	2.a	67.022,01	67,77	8,84	23,40
Garraioaren kudeaketa	1.a	58.838,51	72,21	9,09	18,72
	2.a	57.350,68	71,28	9,53	19,20
Informatikako aplikazioen garapena	1.a	70.665,36	74,02	9,39	16,60
	2.a	59.371,95	71,04	9,18	19,76
Anatomia patologikoa eta zitologia	1.a	68.107,81	71,85	8,99	19,18
	2.a	53.476,24	66,58	9,01	24,43
Arte Grafikoen industrietako ekoizpena	1.a	71.188,35	67,70	8,08	24,43
	2.a	67.477,37	66,01	8,45	25,56
Mekanikako proiektuen garapena	1.a	69.742,55	69,53	8,61	21,87
	2.a	67.512,51	68,36	9,06	22,59

8.2.b) Hezkuntzako itunak. Aurrekontua, guztira.

133. koadroa						
Hezkuntzako itunak. Aurrekontua, guztira. 1997-2002 (mila pezetatan)						
Urteak	Obrak, materiala eta jarduerak.	Hezkuntza Berezia eta Haur Hezkuntza.	Lehen Hezkuntza.	L.H.	DBH eta Batxilergoa	GUZTIRA
1998	300.000	Haur Hezkuntza: 1.249.700 Hezkuntza Berezia: 236.200	3.813.800	I.S.: 15.000 LH I eta erd-zikl.: 370.800 LH II eta goi-zikl.: 665.300 Salesiarrak: 35.000 Salesiarrak: 17.350	DBHko 1. zikloa: 1.314.000 DBHko edo BBBko 2. maila: 2.050.600	
	300.000	1.485.900	3.813.800	1.103.450		10.067.750
1999	313.472 100.000	Haur Hezkuntza: 1.325.451 Hezkuntza Berezia: 250.600	4.107.044	G.S. eta erd-zikl.:369.290 LH II eta goi-zikl.:562.071 Salesiarrak: 35.700 Salesiarrak: 17.700 Desescolariz.: 25.220	DBHko 1. Zikloa: 1.502.842 DBHko 2. zikloa: 1.788.784 Batxilergoa: 652.013	
	313.472	1.576.051	4.107.044	1.009.981	3.943.639	11.050.187
2000	120.000	Haur Hezkuntza: 1.569.474 Hezkuntza Berezia: 296.088	4.212.463	G.S. eta erd-zikl.:385.725 LH II eta goi-zikl.:417.192 Salesiarrak: 36.414 Salesiarrak: 18.054 Eskolatugabeak.: 42.250 Premia bereziak: 5.200	DBHko 1. Zikloa: 1.515.577 DBHko 2. zikloa: 1.865.757 Batxilergoa: 1.093.424	
	120.000	1.865.562	4.212.463	904.835	4.474.758	11.577.618
2001	30.000 50.000	Haur Hezkuntza 0-3: 750.000 Haur Hezkuntza, 3-6: Hezkuntza Berezia: 317.702	4.519.973	Erdi-maila: LH II eta goi-zikl. 447.647 Salesiarrak: Salesiarrak: Eskolatugabeak 64.234	DBHko 1. Maila: 1.614.756 DBHko 2. Maila: 2.001.957 Batxilergoa: 1.182.204 Col.INABAD: 3.121	
	80.000	2.644.448	4.519.973	982.018	4.802.038	13.028.477
2002 (*)	282.150 180.034	Haur Hezkuntza, 0-3: Haur Hezkuntza, 0-6: Hezkuntza Berezia: 2.022.598	29.258.399	Erdi-maila: 2.643.461 Goi-maila. 2.660.362 Salesiarrak: 333.904 Eskolatugabeak 536.397	DBHko 1. Maila:10.670.415 DBHko 2. Maila:12.776.548 Batxilergoa: 7.586.305	
	Miles Ptas.	76.900	2.750.695	4.868.188	1.027.288	5.163.501
	Euros	462.184	16.532.010	29.258.399	6.174.124	31.033.268
						83.459.985

(*) Behin-behineko datuak, luzatutako aurrekontutik eta parlamentuak irakaskuntza hobetzeko 2002ko ekainean hartutako erabakietatik aterata.

Boto partikularrak

HERRIKOAK aurkeztutako boto partikularra

Lehen Boto Partikularra. Haur Hezkuntzako 2.1 atalari.

Testu hau sartzea onartu ez dutelako:

Eskola Kontseilu honek uste du garatzen ari dena hein handi batean laguntza-atenzioari dagokiola hezkuntza-atenzioari beharrez, honela kezkatuta gaude hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea bermatzen duten zenbait baldintza, indarrean dagoen legedian ageri direnak, ez dutelako eskatzen, hauen artean egongo lirateke profesionalen kualifikazioa eta lekuari dagokion hainbat xedapen. .

Iruñeko Udal Eskolek Nafarroan duten eskarmentua nabarmentzekoa da, hauek LOGSEn daudenekin bat datozen planteamendu pedagogikoak erabili izan ditu, hortaz, etapa hau erregulatzerakoan bere ibilera adibidetzat har zezaketen.

Azalpena:

Herrikoa kezkatuta dago Nafarroako Foru Komunitateko 0-3 urte bitarteko hezkuntza-zikloaren ezarpena dela eta. Gure ustez, gizartean dagoen eskaerari erantzuteko, ezinbestekoa da Haur Hezkuntzako lehen ziklo honetako plazen eskaintza zabala egitea, baina eskaintza hau egin aurretik, indarrean dagoen legediarekin, gutxienez, bat datorren erregulazio bat egin behar izango zuten.

Iruñeko Udal Eskolek duten eskaintza kalitate handikoa izaki, tamalgarria da eskaintza hau Nafarroa osora ez zabaltzea.

2. Boto Partikularra. 2.2. atalari. Lehen Hezkuntza.

Testu hau sartzea onartu ez dutelako:

Lehen Hezkuntzari dagokionez, Eskola-Kontseiluak proposatzen du Kultura eta Hezkuntza Sailak aniztasunari kasu egiteko osoko plan bat garatzeko, plan hau zentro bakoitzak bere eskumenen esparruan egokituko du, plan honen bidez aldi honetan sortzen diren zailtasunak, gero Bigarren Hezkuntzan azaleratzen direnak, ezabatuko lituzkete.

Azalpena:

Ikasleen gurasoek jakin izan dugu hezkuntza-administrazioen eta komunikabideen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara heltzen diren ikasleek gabeziak dituztela testuen ulermenean eta idazmenean, gabeziak oso handiak dira, abian dagoen hezkuntza sistemaren erreforma ezinbestekoa izaki.

Gure ustez zerbait egin behar da arazo hau bere jatorrian ezabatzeko.

3. Boto Partikularra . 2.5 atalari Lanbide Heziketa.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

Heziketa zikloen eskaintza, erdi mailakoa zein goi mailakoa eta batetik bestera joatea ahalbidetzen duen kurtsokoa, ez da aski ikasleen eskaera ikusita, izan ere, eskaera honek, kasu batzuetan, eskaintzen dituzten plazak gainditzen baititu.

Eskola-Kontseilu honek Nafarroako Gobernuari, joerak aztertzen jarraitzeko gomendioa luzatzen dio, ikasleen eskaera eta sektore produktiboaren beharrak aintzakotzat hartuta, eskaintza orekatzen joateko.

Halaber, heziketa zikloen barneko antolamendua berriz aztertzea gomendatzen dugu.

Heziketa zikloen iraupenari dagokionez, 1.400 orduetatik 2000ra luzatzea eskatzen dugu, honela, formakuntza espezializazioko oinarritzko eduki eta trebetasunez osatuko dute, era berean, zikloen egitura gainontzeko araututako ikasketen erritmo eta iraupenari egokitzea eskatzen dugu klaserik gabeko denboraldiak ekiditeko.

Nafarroako Eskola-Kontseiluaren iritziz, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan ikasleak, gurasoak eta irakasleak ordezkaturik egon beharko liriateke.

4. Boto Partikularra. 3.5 atalari Ikasle etorkinak eta Osabidezko Hezkuntzako Programetan.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

2002ko ekainean itundutako zentroek ikasle atzerritarren %22,7 hartzen dute, ehuneko hau oso txikia da ikasle guztiei begiratuta dutenarekin alderatuz gero.

Ehuneko hau anitz jaisten da Afrikako jatorria duten ikasleak hartuz gero, kasu honetan %8,83^a hartzen dute, Bigarren Hezkuntzan, gainera, ikasle hauek ez daude ia eskolatuta.

Eskola-Kontseilu honek, Nafarroako Gobernuari ikasle hauek sare publikoan eta itundutako zentroetan, eta bi sareen zentroetan, modu orekatuan banatzeko beharrezko diren neurriak hartzeko eskatzen dio. Gure ustez, ikasgela bakoitzean arrazoi ezberdinak direla eta hezkuntza-arreta berezia jaso behar duten ikasleen gehieneko kopurua paratu behar da, ikasle hauek eskolan egoki integratu daitezela.

Oreka hau lortzeko beharrezkotzat jotzen ditugun neurrien artean, behar diren eskualdeetan aurrematrikulazio-unitateak sortzea izango litzateke. Unitate hauek itundutako ikastetxeetan eta ikastetxe publikoetan eskaintzen dituzten plazen eta eskolatzeko baldintzen berri emango lukete, eta honen arabera ikasleak hartzeko dagoen legedia zuzen eta gardentasunez aplikatuko lukete.

Horretaz gain, Eskola-Kontseilu honek ikasleak hartzeari buruzko araudian, irizpide osagarriez diharduten hiru puntuak, ikastetxe bakoitzak zehaztu ditzan gelditzen direnak, kentzea gomendatzen du; izan ere, puntu hauetan legearen zirrikitia aurkitzen baitute ikasleak aukeratzeko.

Azalpena:

Txosten honetan aipatu behar zituzten gure Komunitateko bi sareek, publikoak eta pribatuak, biak diru publikoen bidez finantzatuak izaki, ikasle etorkinak ez dituztela modu orekatuan hartzen, batik bat hau baliabide nahikorik ez duen familia baten kidea bada, frogatzen duten datuak.

Azkeneko urteetan, hainbat ikastetxe, geto bihurtu dira, eta arazo hau, berria ez bada ere, ez du Nafarroako Gobernuak aitortu nahi, eta, era berean, ez aitortzean, ez dio konponbiderik planteatu nahi.

Gabezi ekonomikoak eta sozialak dituzten ikasleak nekez gizarteratuko dituzte, arazo hauek dituzten ikasle guztiak zentro zehatz batzuetan metatuz gero. Ikastetxe hauetan horrelako ikasleak anitz direnez, ezin dira guztiez, baliabide osagarriak jaso arren, behar bezala arduratu. Gure Komunitatean bi ikastetxe mota egotea ez da inolaz ere onargarria ez moralki ezta politikoki ere; Batean ikasle guztiez arduratzen dira, eta bestean ikasleak, baliabide sozial eta ekonomiko gehien dituzten sektoreetan aukeratzen ditu.

5. Boto Partikularra. 4.1. atalari. Ikastetxe publikoen irakasleak. Erlijiozko irakasleen kontratatzea.

Testu hau sartzea onartu ez dutelako.:

Eskola-Kontseilu honek agerian utzi behar du, egun, erlijio katolikoa ematen duten irakasleak Administrazioak kontratatu eta diru publikoz ordaintzen dituen arren, hezkuntza-agintariek ez dutela inolako kontrolik hauen izendapenean, hau zeharo ulergaitza izaki.

Eskola barruan egon behar den sinesmen-aniztasuna dela eta, eskola-orduetan erlijioa ematea auzitan jarri beharko litzateke. Eskolak sustatu beharko lituzke mundu osoan ezagututako baloreak eta denok izan behar ditugunak, eta ez sinesmenetan oinarrituta pertsonen arteko banaketa sortzen dutenak.

6. Boto Partikularra. 5.4 atalari. Azpiegitura eta ekipamenduak. Zentro berriak eraikitzea, zabaltzeak eta egokitze eta hobetzeko obrak.

Testu hau sartzea onartu ez dutelako:

Zentro publikoetako obrak.

Nafarroako Eskola-Kontseiluak ikasgelatzat modulu prefabrikatuak dituzten zentroetako zabaltze-obrak ahalik eta lasterren egitea gomendatzen du, hauetako batzuk ez dira 2002-2003 ikasturterako aurreikusitako obretan ageri.

Bestaldetik, Sailari gomendatzen diogu ikastetxeetako obrak egiteko epeak direla eta, tentuz ibiltzeko bat ez etortzeko eskola-orduak dauden aldiarekin.

Azalpena:

Burlata eta Zizurreko zentroek behar dituzten egitura-inbertsioak atzeratzen ari dira. Bestaldetik, Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuko eraikuntza ere atzeratuta dabil, atzerapen hau, gainera, luzatzea espero dute.

Lerrokada hau sartu delako:

Nafarroako Eskola-Kontseiluaren iritziz, beharrezkoa da aurrekontu-sail bat ezartzea itundutako zentroen eraikitze, zabaltze edota eraberritze obrei dirulaguntzak emateko.

Azalpena:

Kontraesankorra da ikastetxe pribatuetako eraikuntza-obrei diru-laguntzak ematea ikastetxe publikoek behar dituzten inbertsioak atzeratzen ari direnean eta zentroek funtzionatzeko behar duten gastuko kontu-sailak nahikoak ez direnean. Inbertsio hauek egiteko diru-laguntzak eman beharko lituzke instalazio hauek, denek erabiltzeko izatekotan; bestela biztanleen gutxiengo

batek erabiliko lituzke.

7. Boto Partikularra . 5.5 atalari. Gobernu-Organok.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokienez, bere formakuntza osoa laguntzen duten elementuetako bat ohitura eta jarrera demokratikoak sustatzea izaki, zentroetako ordezkariak hautatuz bere parte-hartzea sustatzea gomendatzen dugu, aukera hau Lehen eta Haur Hezkuntzako Zentroen Araudi Organikoaren 9. artikulua 6. puntuan aurreikusita dago.

8. Boto Partikularra. 7.3 atalari. Eskolako Zerbitzuak.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

A) Eskolako zerbitzuak.

Eskolako jantokia oinarritzko zerbitzu osagarria izaki, Bigarren Hezkuntzako zentroetan ezartzea gomendatzen dugu, honela heziketa-zerbitzua hobetzeaz gain, familian gertatuko aldaketak direla eta, gizartean dagoen eskaera erantzungo zaio. Gainera, neurri honen bidez, jantokiko beka jasotzeko eskubidea duten ikasleek arduratuko lirake, hauek ez dute, egun, beka hau jasotzen institutuek zerbitzu hau eskaintzen ez dutelako.

Eskola-Kontseiluaren iritziz eskola-jantokien zerbitzuen araudia berriz aztertu behar dute, horrez gain, bere ustez organo erabakitzailerik gorenak, Administrazioak ikuskatuta eta IGEen txostena jaso eta gero, Eskola-Kontseiluak izan beharko lirake. Era berean ikuskatu beharra dago zaindarien funtzioak eta formakuntza, eta egungo ratioen hobekuntza.

Azalpena:

- 246/1991 F.D.k, "arruntak" izena duten (eskualdekoak ez direnak) jantokiei dagokienez, IGEen esku uzten du hauen kudeaketa, kontratatzea, arduraduna izendatzea eta finantzatzea. Gaur egun, zentro publiko guztiak "integraziokotzat" dituzte eta ikasle bekadunak dituzte. Ezin da erakunde boluntario baten esku utzi, egon daitekeena ala ez, heziketa-zerbitzu honen ardura.
- 186/1993 F.A.k, aipatutako Dekretua garatzen duenak, dio jantoki bakoitzean gutxienez 40 ikasleko arduradun bat egon behar dela, ratio hau agerian da ez da nahikoa eta are gehiago zerbitzu honetaz baliatzen den Haur Hezkuntzako ikasle kopurua kontutan hartuta.

9. Boto Partikularra. 7.3 atalari. Eskola-zerbitzuak.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

b) Eskola-garraioa.

Eskola-garraioari dagokionez, uste dute komenigarria dela Zaindariak sartzeari Bigarren Hezkuntzako ikasleen garraioan.

Bestaldetik, beharrezko eta familientzat oso erabilgarria ikusten dute Hezkuntza-Administrazioak antola dezan derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleen garraioa.

10. Boto Partikularra. 8.2 atalari. Hezkuntza-Itunak.

Testu hau sartzeari onartu ez dutelako:

Foru Komunitateak itunduta ditu ikastetxe pribatuen ia %100^a, derrigorrezko zikloetan izatez gain, derrigorrezko hezkuntzakoak ez diren Haur Hezkuntzako 2.zikloko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloko ikastetxeak ere itunduta ditu, honetan bakarra da.

Konstituzio eta indarrean dagoen legediaren arabera Hezkuntza-Administrazioek doako sare publikoa mantendu behar dute, honetan herritarren hezkuntza jasotzeko eskubidea, aukera-berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuta egon behar dira, edozein motatako hautaketa edo bazterketarik egon gabe.

Nafarroako Eskola-Kontseiluaren iritziz sare pribatua publikoaren osagarria izan behar da, honela sare publikoa iristen ez den lekuetako biztanleriaz arduratzen diren zentro pribatuetako derrigorrezko hezkuntzako unitateak bakarrik finantzatu behar dituzte eta itundutako zentro pribatu hauek publikoek betetzen dituzten baldintza berberak bete behar dituzte.

LANGILE-KOMISIOEK AURKEZTU DUEN BOTO PARTIKULARRA

CCOOek 2001/2002 ikasturteko Hezkuntza Sistemari buruzko txostenaren aurkako botoa eman dute, bere iritziz bertan ez dituztelako ongi landu bere oinarrizko puntu batzuk.

Hezkuntza-aurrekontuak eta gure Hezkuntza Sistemari gero eta ikasle etorkin gehiago egoteak eragiten dituen erronkak bezalako gaiak ez dituzte guk nahiko genukeen bezain sakon aztertu. Egia bada ere Nafarroan BPGren portzentajeari dagokionez hezkuntza-gastua dela eta lehen postuetan gaudela, honek, halere, ez dizkigu aspektu negatiboak ahantzarazi behar.

Ikasle bakoitzeko egiten dugun gastua biztanleko BPGrekin bat dator, hau lortzeko, beraz, Administrazioak ez du ahalegin berezirik egin behar. Baina horretaz gain, azkeneko sei urteetan etengabe gutxitzen ari da Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-gastua BPGri dagokionez.

Egoera honen ondoan, Mendillorri, Sarriguren, Zizur edo Burlata bezalako zonaldeetan egitura-inbertsioak egiteko programazioaren atzerapena dugu eta Irakaskuntza Pribatuari adjudikatutako gastua izugarri igo dela azkeneko urteetan, %30 baino gehiagoko igoera azken lau urteetan. CCOOen iritziz beharrezkoa da gastu publikoa erreperatzea eta Zentro Publikoetako funtzionamendu-gastua bezalako kontu-sailak igotzea.

Ikasle etorkinen presentziari dagokionez, datuek erakusten dute Nafarroako Itundutako Zentro gehienek elkartasunik eza. Sare publikoak Nafarroako Hezkuntza Sistemari duen ehunekoa ikusita, ikasle etorkinek behar baino askoz portzentaje handiagoa hartzen dute bertan.

Desoreka hau areagotzen da jatorri ekonomiko edo kulturala dela eta, hezkuntza-behar handiagoak dituzten etorkin multzoekin erlazionatuz gero, gaztelan egiten ez dutenak kasu.

Desoreka hau Itundutako Zentro ezberdinen artean ere gertatzen da, honek ez duela zerikusirik ikasle banaketa geografikoarekin, Itundutako Zentro batzuek edo besteek duten jarrerarekin baizik.

Orain arte hartutako neurriak, kupoak besteak beste, ez dira eragingarriak izan. Gainera, honen

eraginez tirabirak gertatu izan dira sareen artean, hortaz, konponbidea eman ezean, Hezkuntza Sistemari negatiboki eragin lezake.

Administrazioak desoreka hori zuzentzeko gutxieneko adostasuna sustatzeko ekimena bere gain hartu behar du, adostasun honetan, Administrazioaz gain, enpresaburuen elkarteek, sindikatuek eta gurasoen elkarteek ere parte hartu behar izango lukete.

Ikasle etorkin arazo hau, itxura guztien arabera, luzerako egongo denez, hezkuntza-itunak onartu beharko lirakeke kontutuan hartuta, besteak beste, sareen arteko oreka lortu behar dela.

Zentro Publikoek eta Itundutako Zentro batzuek egiten duten ekarpena etorkinen gaia gure gizartean faktore positiboa izan dadin, giza-baliabideak eta baliabide materialak ematerako orduan, bazterketa positiboaren bidez eskertu behar dute.

STEE-EILAS SINDIKATUAK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA

2002ko abenduaren 19an egindako bilkuran, 2001-2002 ikasturteari dagokion Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena eztabaidatu eta onartu zutenean, ordezkatzan dudana Sindikatuak aurkako botoa eman zuen aurrerantzean azalduko ditudan arrazoiak direla eta.

STEE-EILAS sindikatuaren aurkako jarrera, aipatutako txosten horretan NAFARROAKO ESKOLA-KONTSEILUAK ESATEN EZ DUEN GAUZETAN oinarritzen da nagusiki. Hau da, informazio-laburpena eta balorazio batzuk zuzenak dira gure ustez. Sindikatu honek uste du, berriz, Eskola-Kontseilua, organo aholku-emailea izaki, zertxobait gehiago inplikatu beharko litzatekeela bere balorazio eta iradokizunetan eta zentzu honetan txostenak ez du bere baitan hartu Nafarroako Hezkuntza Sistemaren aspektu garrantzitsuak, hauek jarraian zehaztuko ditut.

2.1 atalari. Haur Hezkuntza. 0-3 urte bitarteko zikloaren garapena

Iritzi hau sartzea proposatzen zen:

“ Ondorioz, Eskola-Kontseilu honek Hezkuntza Sailaren aurrean bere kexa formal adierazten du, delako erregulaztea atzeratzeko politika sistematikoak organo aholku-emaile honen ustez suposatzen duen arreata-faltagatik. Era berean, Sail horri eskatzen zaio 0-3 urte bitartekoa premiaz erregulatzeko LOGSEren esparruan.”.

2.1 eta 2.2 atalei. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Iradokizun hau egitea proposatzen zuten:

“Kontseilu honek egoki irizten dio etapa hauen egitura aztertzeari, hala kurrikuluari dagokionez nola espazio eta denboren banaketari dagokionez, honela kurrikuluko materia zehatzek ezartzen duten errealitateari eraginkorki aurre egitea posiblea izan dadin: ingelesa, erlijioa, euskara, musika eta psikomotrizitatea”.

Osotasunaren kontzeptua galtzen da eta lana zailtzen da ikasleen ikasteko denbora eta erritmoak egokitu behar zaizkielako espezialistenei. Agerikoa ematen du hausnartzen hastea eta etapa hauetan gertatzen ari dena aztertzea.

2.1 eta 2.2 atalei. Lehen eta Haur Hezkuntza.

Onartu ez zuten STEE-EILASen proposamenak horrela zioen:

“Nafarroako Eskola-Kontseiluak, espezialista bat baino gehiago egotekotan, irakasleak koordinatzeko sailak sortzea proposatzen du, hau arduratuko da irakasleen lan profesionala defendatutako helburuei egokitzeaz.”

2.10 atalari. Aniztasunaren atentzioa. Kulturartekotasuna. Osabidezko Hezkuntza

Etorkinentzako arretaren inguruan honakoa proposatzen genuen:

“Zentzu honetan malgutasuna egokia izango litzateke mailak eta zikloak, eta kurrikuluko ikasgaien kopuru eta mota egokitzerakoan. Honen bidez, gizarteratzeko beharrezkoagoak diren ikasgaiak sakontzea ahalbidetuko da, gerorako utziz kurrikuluaren beste aspektu batzuk”

2.10 atalari. Aniztasunaren atentzioa. Kulturartekotasuna. Osabidezko Hezkuntza

Nafarroako ikasle etorkinen atentziori dagokion puntuan, laguntzei dagokien lerrokadan, eskaerak direla eta, honakoa eranstea proposatzen:

“...“ofizialki aurreikusitako epeez kanpo eginak izan arren”

3.5 atalari. Ikasle etorkina eta Osabidezko Hezkuntzako Programetan.

Jatorri sozio-ekonomiko edo kulturalagatik baztertutako biztanle etorkinen eskolaratzean dagoen desorekari buruzko balorazio urria txostenetik kendu dute. STEE-EILASen ustez, argi dago ikasle hauek ez dituztela sare bakar batean pilatu behar, kasu honetan sare publikoan, eta ildo beretik zentro zehatz batzuetan metatzea saihestu behar da. Arazoa, egon badago, txostenarekin batera doazen datu estatistikoetan ikus daitekeen bezala. Orain arte, ez da ia neurririk hartu, oso emaitza eskasak izan dituen kupoarena izan ezik. Argi dago Hezkuntza-Administrazioak, eta gainontzeko eragileek, seriotzat jo behar dutela arazo hau, eta adostasuna lortze aldera lan egin behar dutela egun agerikoa den desoreka konpontzeko. Itundutako zentro pribatuetan edo publikoetan matrikulatzeko laguntzen aukeren eskaintza argia emateak eta eskaintza horren kontrol sozial eragingarriak desoreka hori moteltzen laguntzen ahalko lukete.

4.1 atalari. Ikastetxe publikoen Irakasleak (bitartekoen kidegoak)

Hasiera batean Batzordean onartutako zuzenketa Bilkuran baztertu zuten, honela zioen:

“Nafarroako Eskola-Kontseiluak Sailari eskatzen dio sindikatuetik akordioa bultza dezan behin-behineko administrazio-kontratuko erregimenean dagoen irakasleen lan-baldintzak hobetze aldera”.

4.1 atalari. Ikastetxe publikoen Irakasleak (bitartekoen kidegoak)

Erlizozko irakasleak kontratatzeari dagokionez, STEE-EILASek bere egiten du “HERRIKOA” izeneko Gurasoen Federazioak aurkeztutako zuzenketa, honetan Administrazioak kontratatu eta ordaintzen dituen irakasleak elizako agintariek bakarrik kontrolatzea desegokitzen jotzen zuten. Egoera hau, legeak agintzen duen bezala, Eliza-Estatua Akordioek arautzen badute, eta epai berri batzuek bere konstituzionaltasuna zalantzan jarri dutenez, bada garaia Gobernuak

akordio horiek sala ditzan eta “erlijioko dotrina”ren irakaspena” (Ministro andrearen hitzak, el Paísen, 01-12-20), irakaskuntzaren kurrikuluan ager ez dadin.

4.1 atalari. Ikastetxe Publikoetako Irakasleak (bitartekoen kidegoak)

Bilkurak hasieran Batzordean onartua izan zen zuzenketa bat baztertu zuen, honetan Lan-osasuna eta Lan-segurtasunaren gaiaren inguruan konpromiso seriorik ez dagoela salatzen zuten:

“Era berean, Kontseilu honek, erabilgarri dugun informazioak argitzen duenez, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren esparruan Osasun eta Segurtasunerako Batzordeak egiten duen lanaren eduki eskasa egiaztatu du, ondorioz, Hezkuntza-administrazioari eskatzen dio Prebentzio-Zerbitzua sustatu dezan giza-baliabide eta baliabide material gehiagoz hornituz. Ez dirudi zentroko idazkaria zeregin hau betetzeko moduan dagoenik, honek dakarrena ere ez baitiote jakinarazten.”

6.1 atalari. Euskarazko eta euskararen matrikula, irakasleen eta zentroen bilakaera

Asmoa zen Batzordean eginiko balorazioari honako edukia ematea:

“Foru Komunitatean euskara kurrikulua ikasgaia, ikasleei euskara edo euskaraz ikasteko parada eman, ez izanak Nafarroako Eskola-Kontseiluak harritu du, hau baita gure ustez egiazko elebitasuna lortzeko modurik egokiena”

6. atalari. Euskara Nafarroako hezkuntza sisteman.

Asmoa zen Nafarroako Eskola-Kontseiluak kritikoki baloratzea azken urte hauetan Foru Gobernuak eraman duen hizkuntz politika. Horregatik honako proposatzen genuen:

“372/2000 eta 203/2001 Foru Dekretuak garatu eta aplikatzea, Nafarroako Eskola-Kontseiluaren ustez, euskal hizkuntza komunikatzeko eta irakasteko tresna bilakatzea nabarmen oztopatzen ari da, izan ere, honen bidez ezinbestekoa zaion gizarte esparrua ukatzen baitaio. Kezkagarria da bere ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleek dekretu horien aplikaziotik datozen oztopoak izan ditzaten Administrazioarekin eta gizarte komunikazioen eremuan. Halaber, kezkaz ikusten dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko ikasketak erregulatzen dituen geroko araudiak egun daudenak baino muga gehiago ezartzea.

Era berean, Hezkuntza sailak ez duela inolako sentiberatasunik zentroekiko komunikazioan eta txosten, foileto eta material didaktikoa argitaratzerakoan, hauek neurri handi batean gaztelania hutsean egiten baitituzte, adierazi nahi dugu.

Hortaz, Eskola-Kontseilu honek Kultura eta Hezkuntza sailari eskatu nahi dio maila altuagoko araei kontra egiten ez dien marko legala malgutasunez erabil dezan eta Euskal Hizkuntzaren garapena eta ikastetxe eta Administrazioaren arteko harremana sustatu eta lagun dezan”.

8. atalari. Hezkuntzako aurrekontuak.

Eskola-Kontseiluak ez ditu Hezkuntzako aurrekontuak baloratzen. Portzentajezko datuek ez dute erakusten irakaskuntzari eskaintzen dioten dirua igo denik. Itundutako irakaskuntzari eskaintzen dioten dirua, ordea, nabarmen handitu dute. Sindikatu honen iritziz, argi dago irakaskuntza publikoa izan behar dela Nafarroako hezkuntza sistema egituratzen duena, hortaz, horretarako baliabideak izan behar ditu. Ikasle bakoitzeko gastuak mantendu edo handitu dituzte, halere, denok dakigu datu horiek ez ditugula erabili behar bi sareen ezaugarriak

kontuan hartu gabe, eta irakaskuntza pribatuak jasotzen dituen diru-laguntzetan egon diren igoerak kontuan hartu gabe. Argi dago, itunak zenbatzerakoan, derrigorrezko irakaskuntza dena eta ez dena argi eta garbi bereizi beharko luketela.

Azkenik STEE-EILASek honakoa proposatzen du:

Hurrengo txostenak egiterakoan komenigarria izango litzateke, egindako laburpen eta laukietatik datorren informazio bikainaz gain, txostenak eduki, iruzkin, balorazio eta proposamenetik gehixeago ere izatea. Hala ez bada, txostena urtekari estatistiko bikaina bihur daiteke.

Iruñean, 2002ko abenduaren 23an
José Luis Larrea Cenozek, STEE-EILASen ordezkariak sinatua